

K U

KULISKA SORTA

35 - 36'garren zenbakia

R.30424

K U L I S K A S O R T A

ZIRIKADAK

(Ipuin barregarridun liburua)

JUAN SAN MARTIN

Julian Zabaleta'n dibujuak



Itxaropena Argitaldaria

ZARAUTZ'EN

1960

DEPOSITO LEGAL S. S. 335-1960
N.º REGISTRO 1395-60

ESAN BEAR BATZUEK

Irakurle: emen dituzu berriz be Plazentzia'ko ipuin barregarriak, ta oraingoan inguru eretako euskerarekin ornituak. Bertako ipuiñik geienak Plazentzia'koak izanarren, asko ta asko Eibar'koak dira, ta banakaren bat Elgoibar ta Bergara'koak; baintzat nik orkotzat jaso ditudaz. Ta emen doiazen batzuek, lenago "Eibar" errebistan argitaratuak diraz.

Plazentziarren ustez eibartarrak ei gara eureri olako ipuin zelebriak asmatzen detsaguzenak. Zati bat egia izan leike, baña ez guztia gizurra. Euren bizkarrera jaurtze orrek bere errazoiak izango ditu: sua dauan lekutik, keia.

Danen gogoa betetzea erreza ez bada be, orretara alegindu gara Eibar inguruko euskeran egitera-koan. Aurretikoa, "Pernando Plaentxiatarra" izenarekin argitaratu zana, Etxaide nere adiskideak euskera osotuan egin eban, eta nere ustez, bai batasunan aldetik eta bai edertasunan aldetik, askoz be obeto egoan. Agiririk onena berari egin dako arrera ona izan zan; denpora gutxin barruan liburu guztiak aitu ziran. Osotuan egin bearragaitik ez ziran da-

nak gusto-gustora gelditu. Oin, beste alderdiakin beste orrenbeste gertatuko dalakotzat nago, naizta lengoagaz eta onegaz gauzak erdi txamarrera eruan.

Eibar'ko euskerak jokera geiago dau Bizkai'ko euskalkira Gipuzkoa'kora baño, ta bizkaitarrak ez dabe izango ipuin liburu au ulertu eziñik, ta kipu-trentzat be, zalantza bage, bizkai-bizkaikoa baño ulerterrezagoa izango da.

Etxaide'nagaz, Euskalerria'n ezagutzera. emon zan gure inguru onetan egoan zirikadetarako etorkizuna, giroa ta gatzia. Ta oingo au izango al da bide bat sorkaldeko euskaldunak gure euskalkia ta zikolojia obeto ezagutu deien; emengo euskeltzaleak euren ezagutzen dogun bezela. Ta alkar ezagutze onek ez deutsa kalterik egingo euskeraren giarrari ta euskaldunen izakerari, ta gutxiago euskeraren batasunari. Orrelako iritziak nerabiazten nerekautan, gipuzkoeraz egin ala gure bizkaitarren kutsuduna egin erabagi naian ibilli nintzanean.

Onela egin bear onek, ba-dau zerbait geiago be, ta nere ustez garrantzizkoa. Geienian gipuzkoerazko liburuak eskeintzen deutsaguz gure inguru oni (Plazentzia, Eibar eta inguruak esan nai dot), ta urrengo bizkai-bizkaikoak. Ez batak eta ez besteak, ez dau gaur egunean eragozpenik euskeltzaleentzat, euskeraz irakurtzen oituak daren euskeltzaleentzat, baño asko ta asko dira erri onetan euskerakin arduratu ez tiran euskaldunak: batzuek, ardurabakoak diralako; beste batzuek, bear kontuetan naikoa burukomin daukelako; urrengokoak, una libreak urri dituen bizi-modu estu baten sarturik darelako, ta abar. Ta olako gauzak gutxi ez-padira, euskal irakurle asi nai dabenak, beste olakoak billatu ditu: grafia berria, euskalki ez ezaguna, ulertzen ez dituan itzak, eta abar. Uste ezarren, gaurko bizi-modurako eragozpen asko dira, ta eragozpen orrek

benderatzeko guztiok ez dogu izaten borondate berdiña.

Korapillo onek arintzeko ez litzake gaizki egongo emengo euskeran idatzitako lan geiago bagenka. Ori izango litzake bide bat emengoak euskeraz irakurtzera oitzeko. Ikusita dago erriak irabasteko bakoitzari berea emon bear jakola. Eibar'en baintzat, erriak berak ori eskatzen dau, euskeltzaleak aintzat artu bage, ta ortik irabasten dogun erriak denporarekin beste euskera osoturuntz be joko dau.

Nik baintzat, geien bat pe emen euskeraz irakurtzeko oitura zabaltzearren egin dot onela. Baña ez ori bakarrik. Seguru nago tankera onetara egiñik ipuiñak eurak pe beren gatza obeto eruango dabiela. Bestaldetik, gure filologoak, ainbeste eskatzen dabilen "atlas-linguistiko" orretarako krestomatiaren aldeari dagokion zati bat billatuko dabiela bertan.

Jarraituko dot aurrera be ipuin batzen. Ez noia agintzera urrengokoa nungo euskeran egingo dodan, bear bada kiputxez, baña kiputxez egingo ba-neuke be, errikoi izan bearko litzake. Geroago ta ziurrago nago erririk barik euskera salbatzerik ez dogula. Errianganako lokarriak apurtzea, akademismu utsezko euskera batera jotea litzake, ta akademismu utsa izango litzake euskeraren eriotza. Bizia bai da izkuntza guztien muña ta izate guztia. Izkuntzak, izkuntza bezela ez dau beste zentzunik, bizia baño.

Dana dala, gaur or dituzu Deba-ibai erdi inguruko ibarretan bizi-bizirik dabillen izketan; baintzat orretara alegindu naiz.

Naskagarri ez egiteko, ugaritsu erabiltzen ditugun, amaiaretako xa'rik geienak (Tolosa aldeko ya orren antzera erabiltzen doguna nai dot esan) ken-

duta, eurak barik irakurleak arintxuago billatzearen. Ostantzean or dituzu erderakada ta guzti. Orrelakua da gure euskera. Ta amaitzeko, Orbe eibartar bertsolariaren agotik esango deusut:

Eskribituak daude
Eibar'ko izkeran
berba batzuk erderaz
bestiak euskeran
guk ola ikasi gendun
gazte denporan
berriro aldatzeko
ez gaude epokan
ondo aituko dezu
zer esaten dedan.

Eibar'en, Otsallaren 25'ean. 1960

I

ABERATSAK ETA POBRIAK

Plaentxian ba ei ziran aiskide bi, bata aberatsa ta bestia pobria, eta noizik peñian izaten ei zituen euren arteko eztabaida batzuek. Ez noia esatera bakoitzak beria defenditzen ebenik: pobriak eztaukalako zer defendidu. Eztabaida guztietan, jira ta buelta, aberatsak beriari eutsitzen zetsan, esanaz: «Gauzak darella, deren moduan betiko, ta kitxo»; eta bestiak: «Olan ezin leikek jarraitu; ordua dok, gizon batzuek bestiak benderatu barik mundua zuzentzeko». Baña arekikuak aotik kanpora ez-eben urtetzen ta munduak, oker edo zuzen, lengo bidetik jarraitzen eban.

Bein, orrelako eztabaida batian, aberatsak esan zetsan pobriari:

—Zuek nai dozue, zeuena zeuntzako ta bestiena erdibana.

—Ez, zeuena erdibana izan biarkok, guk gurerik etxaukagu-ta.

—Baña, gizona, bai aberatsak eta bai pobriak, danetarikuak biar dituk oingo munduan.

—Bai, ni konforme nok aberatsak eta pobriak biarko dirana; baña txandaka.

II

EZAUN BAT DALA-TA...

Bein, plaentxiatar bat eta eibartar bat, Madril'era juan ei ziran tratu kontuko biaje batera. Ostatuan sartu ziranian, baztartxo batian arpegi ezauncko bat ikusi zeben prantzez antzerako bikin berbetan, eta esan zetsan plaentxiatarrak eibartarrari:

—I, ori or dagon-ori eztok-pa eibartarra?

Bestiak beatu (1) eban da:

—Bai, ori etxe onetan interprete dagok.

—Da, zer dok ori?

Biar bada ez plaentxiatarrak ezekialako.

—Ba —diño eibartarrak—, orrek inglesakin ta prantzezakin doianian, batak esatetsan guztia bestiarri kontatzen jetsak.

—Eta orri zelan deitzen detsela esan dok?

—Interprete.

—Ba, guk, Plaentxian, olakueri «alkauete» deitzen jetsagu.


III

BIZIAREN GARRATZA

Atxolin ta Irurixa ziran lagun bi ordu santu guztiak alkarrekin pasatzen zituenak. Zer esanik pe

(1) Beatu, begiratu

ez, taberna-zaliak zirana. Aretxek bai eliziak azpian artuta iltzeko arrizkorik barik bizi zirana. Derri-gorrezko biar orrek biarra eraitzen zetsen. Izan be eurendako ori zan biziaren garratza: biarra.



Yulera

—Astia oker ein da dagok —zion batak bestiarri—, egun bat biarra ta sei jai izan biar litzakezak.

Bai, ori-ori. Da, gaiñera goizian biarrian asterakuan jornala kobrau, —zion bestiak.

—Obe eztok goizian oetik jaiki orduko uezabak etxera bialduta eukitzia.

—Orrek guztiok olan izan biar zituan, baña, emen, biargiñok legiekin jabetzen ez garan artian ez dagok gauzonik.

Urtiak juan da urtiak etorri, aiskide bien zoritxarrerako, legiak orrela jarraitu eben; eta ara or Atxolin'i nun etorri jakon eriotzako ordua. Izan be urtiak eztabe parkatzen, ta eriotzaren sega zorrotzak eztau inõrendako errukirik.

Oitura zan moduan, senitxarte ta auzukuak gau-beiia eitera juango zirala ta Irurixa'k, ain lagun aundia ebanez, bera be juatia erabagi eban. Etxian sartu zanian, Atxolin zanaren senide elizkoiak eruan eben gorputz-illaren aurrera. Ta an euan Frantzizkotar praillien abitxuakin kaja baltz baten barruan, eta Irurixa'k, orrela ikusi ebanian, esan zetsan:

—Ai! ai! Atxolin gizajua. Eure bizi guztian biarra besterik eztok ein da oin ein abe praille?

IV

OTUA TA KONEJUA

Aintziñan, Orbea'nian eskupetagiñan eiten ei eben. Otua deitzen zetsen bat ei euan eskupeteri dibujugintzan ta Konejua gatxizeneko bat kontra-maixu.

Kontra-maixuak egunak zaroiazan tallarrera barik eta Otuak preguntau zetsan beste biargin bati:

—Zer pasatzen ete jakok Konejuari biarrera ez etortzeko?

—Gaixorik ei dagok.

—Zer ba, bedar txarren bat jan jok ala?

Urtera ori zala ta, Orbea'nian amaika barre ein ei eben egun aretan. Kontra-maixua biarreratu zanian, laster jua jakon ipur-garbitzailleren (1) bat kontuakin. Ta nola Konejuari grazia gitxi ein zetsan biargiñak bere lepotik ainbeste barre ein biarrak, Otua begitxan artu eban, ta andik aurrera, beti ebillen Otua'ri nundik akatzen bat billauko. Uskeria guztiegaitik juaten zan uezabangana. Otuak, esku-peta mordo-bati lorak ein biarra izan eban; baña, alperrik betiko moduan ein, an eban atzetik Konejua zelibekeriz (2) uezabari nundik kejak eruango. Lorak, gaizki be geizki einda euazela sartu jakon buruan da kontau zetsazen uezabari ziranak eta ez-ziranak. Uezabak, Otua'ri deituaz, dinotsa:

—I, iregaitik kejak jaukadaz, lorak gaizki eiten ei ditut eta.

Otua'k baekian nundik eta nora etorren autua, ta erantzun etsan:

—Neguan zelan nai dozuz ba udabarriko lorak eitia? Gaiñera, zertarako ondo ein; ondo-ondo ingo banituke, benetako lorak diralakuan konejuren batek jango litxuke ta?

Uezabak emon zetsan barriari ta egon eziñik esan zetsan:

—Tira Otua, tira, juari azkar eure lekura, irekin alperrik dok eta.

(1) Ipur-garbitzalle, *bellaco, chivato*

(2) Zelbe, *inpertinente*

V

IXILLEKO-PESKAN

Maltza'tik Plaentxia'ra bitxartian, ba-ebillen Mariño bere kañiorrekin ixilleko-peskan. Ta bera konaturatu barik, juan jakon atzetikara Guardia Zebil bat, da esan zetsan:

—I, Mariño, peskarako lizentziarik badaukak?

—Lizentzia...?

—Bai, lizentzia. Peskan jardutzeko lizentzia biok.

—Lizentzia ez; peskan biar dana pazientzia dok.

Urtera arek ein zetsan graziakin: «Ik olan badiñok, olan izangok», esanda alde ei eban.

VI

GOMAZKO OTELA

Lenago, bazan Plaentxia'n Txergori'neko Otela, amaika zelebrequerki zituana. Plaentxia'ra azaitzen zira biajante guztiak otel aretan sartzen ziran. Biajant'ak ez-ezik afilladore, mielero ta komeriantiak pe bai, sasi-mediku ta pelotariaz gaiñera. Ez zan ostatu-etxe aundi aundia baña an etorrialala danentzako lekua izaten zan beti; ori dalata, jentiak *Gomazko Otela* deitzen zetsan. Oin be plaentxiatarrak, automobillak pasatzeko, obe leukie gomazko kaliak egingo ba-li-txukie.

Txergori bera izaten zan ango portero edo atezain, uezaba ta diru-zaiña, errekadista ta sukaldetako laguntzallia; gaiñera bein baño geiagotan maleta

eruatalia be bai. Ba-eukan Txergori'k naikua buru auste beregain.

Andra Mari biamon batian, barkillero batek ostatua pagau barik iges ein ei zetsan eta an agertu zan aintzixiketa batian Santua'nera.

—1, Santua, bezero batek pagau barik anka ein jestak eta lagaidak bizikletia bere billa juateko, oindiok eztok urrin izango-ta.

—Bizikletia iri? Baña, ik bizikletan ibiltzen badakik ala?

—Eneel..., ez gaiñera.

Txergorin iritziz, euren ostatua, gutxienez bazan Donostia'ko Hotel Londres'an aiñakua. Beran esana zan: «Donostia'tik pasatzen diran kanpotar guztiak ezitituk Hotel Londres'era juaten ostatu billa, baña Plaentxia'ra azaltzen diran kanpotarrak, guztiak gure etxera joten juck».

Aspaldiko partez, juan zan bertara Sagua ikazgiña.

—Jaten arin txamar emon bia-kostazue —esan zetsan Sagua'k Txergorixeziari (1)—, ze, estomangutik ziero izurrauta nabin da.

—Zer pasatzen jak pa?

—Ez jakiñat, aspaldian larregi be jan izan jonat eta emen nabin oin nere buruoni arterik artu ezin da, purgok eta iñun diranok artzen.

—Ai, ai, ai,... —diño Txergorixeziak—, gure etxian euanian ez eban eukitzen purga premiñarik.

—Ez orixe; jaten gendunan ala?

(1) Txergorixezia, Txergori'ren andrea

VII

MEZEDE BATEN ORDEZ

Bein, juan zan guraso bat bere semeari elgorriza osatzen ibili zan medikuarengana kontua pagatzera. Karutxua eritzi zetsan, da gizonak erregutu zetsan:

—Zerbait merkatuko destazu baña.

—Merkatu? Zer dalata?

—Ba, eskerrak nere seme oni, aurten darabi-zuzen irabasiok ez zenduzen izango.

—Zer ba? —erantzun zetsan medikuak.

—Bera izan zalako eskolako guztieri elgorria pegau zetsena.

VIII

KUADRU BATEN BIOZKADAK

Lagun bi ziran. Bata arte zalea, ala be pintura kontuan, eta bestia ez bakarrik olako gauzen kezkarik bakoa, pinturako kuadru bati gizonak ainbeste afan zelan emon leikian be konprenditzen ez-ebana.

Orraitxiok, bein, juan zan bere aiskideagana ta esan ei zetsan:

—Nai badok sinistu, atzo pinturako kuadru bategarrez ipiñi ninduan...

—Eztok 'izango!... Van Gogh, Matisse, Utrillo, Cézanne edo orrelakoren batena izango zuan.

—Nik etxakiat norena zan, baña kuadru galanta zuan da naikua negar erain jestan...

—Nola nai be, ire sentimentueri olako biozkadia emoteko on-ona izan biar.

—Biozkadia diñok, biozkadia?... Aze zastadia emon zestan...

—Ik, zer pentsatzen eban ba? Kuadru onak olakotxiak izatetxuk (1). Ordua zuan iri be zarrada eraitzeko.

—Zarrada diñok, zarrada?...

Artezalia, ointxe bere zaletasuna lagunak konprendiduko ebalata, pozan-pozez egon ezin-da, pre-guntau ei zetsan:

—Ia ba, kontairak zelan izan zan.

—Ba, kuadrua, txintxilizka euan lekutik sokia eten-da jausi zuan eta buruan jo ninduan; emon zestan zartadiakin nola ez najuan ba negarrik eingo?

IX

BION ONERAKO

Plaentxia'ko taberna batian gertau zan. Gabian berandu batian sartu zan tabernan bezero oneneta-riko bat sekulako mozkorrakin da koñak kopa bat ezkatu eban. Tabernariak, dudarik barik aren situa-ziñua aprobetxatziarren, kopa erdi bakarrik atara zetsan.

Baña, mozkorrak zentzuna guttiz galtzeka eukan da konturatu zan tabernariak lapurretan eitea

(1) Izatetxuk, izaten dituk

nai zetsana, ta suak eta garrak artuta asi zan erre-
tolika batian:

—Eztaok deretxorik!! Au eztok osua! Nik betia
ezkatu juat!

Tabernaria, aterik aiña maratilla zitxuenetarikua
zan eta laster erantzun zetsan bere okerra zuzendu
naian:

—Parkatik, baña bion onerako ein juat.

X

PERNANDO'REN AMETSA

Udako egualdi sargori baten, Pernando oian buel-
taka ebillen luak artu eziñik. Alakoren batian, kos-
tata abar luak artu eban. Baña, amesetan be beruak
ez-etzan alde eiten eta or nun asi zan gure Pernando
egarriaren-egarriz iturriak ez-eze errekak be agortu
biarrian. Nai ardaua, nai ura edo nai petroliua, edo-
zer biar eban egarriak itoko ezpa eban.

Bere amesetan, ointxe errietatik eta batez be
tabernetatik urrin mendi sikuren batian edo naiz
desiertuan bertan basamortuak ziar ebillen. Zutiñik
egon eziñik ziero auldu zan eta bere gorputzari
amain-emon (1) zetsan. Batera batera, jausi zan le-
za-zulo edo inpernuren baten, baña, orra or, eriotzara
doialakuan nun azaltzen dan Meltxor'eneko tabernan.
A zan arnasa estua! «Ia, Meltxor, atara-ik pitxar
aundi bat sardauz beteta». Eldu kirtenetik eta a
zan tragua a! Aotik kendu barik itxu-itxuan pitxar

(1) Amain, utzi; amain-emon, bertanbera utzi

erdi ustu eban... Baña, barruko asetahunak edo garrazahunak esnatu eban Fernando. Eta ara nun



agertu zan lurrian, oe barrenian jarrita oraiñela eskuetan erdi usturik ebala...

—Asko dok ba, au be neri gertau biarra —ziñuan Fernando'k bere buruari.

XI

PLAENTXIA'KO MUSIKAKO BANDIA

Sanjuanak eltzen diranian, Eibar'ko jaiak dirala-ta, erriko musikerueri be jai emoten detse, eurak pe erriko jaiekin aprobetxau deitian; eta erbesteko musikuak ekartzen dira. Kanpoko banda orren tartian Plaentxia'koa be urtero ekartzen da. Bandarik zelebriena izan da nola ez ekarri, orixe bai; Eibar'ko erria, jaietan, ez dago Plaentxia'ko musikako banda barik pasatzeko, ez orixe.

Plaentxiar musikariak, Eibar'en dabien famaz beintzat, Euterpe ta Bako'ren lagun maitaliak dira, eta musikia joten diarduen artian izaten dituen deskantzuetan zaiiak dira txurrutari emoten, ta iñoiz, azken ordurako «atal» (1) makalak arrapatzen dituez; euren zuzendari edo direktorisk amaika zeregin izaten dau eurak zaindu eziñik. Ta, ez ori bakarrik, musikiak pe azkenerako ala-alakuak urtetzen dau; baña, plaentxiatarrerri ez esan olakorik, euren ustez Eibar'tik pasatzen danik bandarik onena da; orretarako agiririk onena, eibartarrak ez dakiela berak barik pasatzen erriko jaiak; bai, eurak eta Estella'ko dultzaineruak.

Urte baten, Plaentxia'ko direktoriak deitu zetsan Eibar'kuari, esanaz:

—I, esaidak aurtengo jaietan ze piezatzuek jotia nai dozuezen.

Ori entzun da nornaik pentsauko leuke gutxienez Filadelfia'ko orkestiak besteko repertorioa zeukela.

(1) «Atal», mozkorra esateko

Eibar'ko direktoriak onela erantzun ei zetsan:

—Ara, piezak nai dozuezenak jo zeikiez, baña gauza bat bakarrik ezkatzen detsuet: joten dozuena joten dozuela, danok batera amaitzia.

XII

ZEIN BAÑO ZEIN TXARTUAGO

Gerra ondorian, Eibar'ko atso zartxo bat, burutik-eiten ebala-ta, eruan eben Santa Ageda'ko zoro-etxera. Sartu orduko tope ei-eban beste eibartar bikin eta aintziñako ezaunak ziranez, alkar agurtu ondoren, esan ei zetsen, sartu barriak:

—Da, ondo zaoze (1) emen?

—Ondo ba-gendenazen ez giñonazen emen egongo. Emen ondo, erlojua bakarrik dagon.

Bigarrenak berriz:

—Emengo gauzok ondotxo jakitzera elduko aiz, da kontaigun (2) kontau Eibar'ko barri.

—Ene! Eibar'en etxerik pe ezton gelditu zutiñik. Barrenkalia be lautu jone!

Egiak izanarren, beste biak ezin olakorik sinistu. Ta, diñotse alkarri:

—Au, gu baño askoz be txartuago jakarrene (3).

(1) Zaoze, zaudete

(2) Contaigun, konta dizaigun

(3) Jakarrene, dakarte, Eibar'en egiten dan nokan.

XIII

TV

Eibar'ko aberas barri bat, Paris'tik osteria (1) ein ondoren, lagunartian kontatzen ziarduan, an ikusitako aurrerapen azkarrak.

—Televisiñua be edozein etxetan dagok.

—Oñezkero emen be laster izango juagu, —diño beste batek ondotik.

An inguruan zan itziartarrak zerbait entzun eban da sartu eban bere muturra.

—Televisiñu ori zer dok?

—Tira, kirtengo. Oindiok televisiñua zer dan eztakik? Ba, radiuan moduko katxarrotxo bat, entzun-ala ikusten dana.

Ez gure aberas barriak asko ekialako; baña, eukian jaikia eban berakin.

—Ikusi? Zer baña ikusi?

—Ba,... gauzak,... jentia be bai. Adelantu aundia dok ori, Españian oindiok ez-jaukagu olakorik.

—Ezta biarbe.

—Zer ba?

—Jente geiago zertarako ikusi? Len garanok pe alkar ikusi eziñik gabiltzak eta.

XIV

UGARIAK NUN NAI

Kale bitarte batetik Fraixko agertu zan gal-tzarpian periodikua ekarrela.

(1) Osteria, joan-etorria, *viaje*

—Periko, irakorri al dok periodikua? Beste satelite bat bota ei juek oin be (1), nork jakik zenbat bidian. Oingo martxan laster izangotxuk gizonak iretargian.

—Zer dalata baña gizonak iretargira juateko ambeste amorru?

—Nunbaitx leku biarrian izango gaituk, ze, ainbeste jentekin, mundu au ixa gaiñezka ein biarrian jaukagu-ta.

—Da zer ba, iretargia utsik egongo dalakuan ago ala? Oiñezkero an be izango dituk gallegu mordoren bat piñu ebaten.

Izan be, biak gauza ugariak.

XV

ARRAIN SOPIA

Plaentxiatarrak, zaliak dira takian-potian afariren bat dala edo meriandaren bat dala, ibaira edo erreKaren batera arrain billa juaten, eta iñoiz, gutxitxo artzen dituenian konsegiduko dabie andik edo emendik, naiz da tranpa ta abar, euren asmua betetzia. Orretarako, badakie iñoiz, naiz da debekauta egon, erreKara *cianuroa* botatzen. Bai Plaentxia'n eta bai Eibar'en, orren barri lartxo be badakie. Izan be, burdiñako biarretan asko erabiltzen da *cianuroa* ta erri biak aukera aundia dauke orretarako. Txar guztiak indarra izaten dabienez, eskola biurri orrek pe badau bere indarra erri onetan.

(1) Oinbe, orain ere

Bein, plaentxiatar batzuek Ondarrua'ra jo eben ta an gelditu ei ziran bazkaltzen; da zer esanik pe ez, itxaz-errian egon ezkerok itxaz jenerotik jan biar. Betekara bat eiteko asmoz, asteko arrain-sopia ezkatu dabe. Baña plaentxiatarrak, euren plateretara ataratzen asi ziranian ez-eben billatzen saldia besterik eta batek esan zetsan kriariari:

—Zu, baña, seguru zare (1) sopa onek arraiñak pe ba-dituana.

—Bai orixe —erantzun zetsan kriariak—; azalían saldia eukiarren, barrenian izango ditu arraiñak pe.

—Ba, orduan, ekarrizu mezedez *cianuro* pixkat, ia azalera urtetzen dabien.

XVI

GAUTXORIA

Bazan Plaentxia'n Gautxoria deitzen zetsen bat, gaberdi-zarrak (2) baño len etxera juaten ez-ekiana. Bere andria be astua makillara ietxe ein da euan.

Gautxoria'ri alper-alperrik zan agiraka eitia; da andriak, nai ta nai ez, obeidu biar izaten eban. Iñoiz auzuak, andriari, gizonarentzat libertade larregi eballa esaten zetsenian: «Alperrik Marixa'k makillatu, berez biardu», erantzuten zetsen.

Diñuenez: Bein, beste askotan moduan, berandu batian jo ei eban etxera. Baña, Gautxoria biotz oneko gizona zan. Ba-zekin, bere andriari be, andra guztieri

(1) Zare, zaude

(2) Gaberdi-zarrak, gabeen berandu

moduan, jentiaren jardunak min geiago emoten zetsala gizonaren parrandak baiño. Izan be gaurko andrentzat kanpoko itxurak dira ondo gorde biar diranak. Orretxegaitik, Gautxoria, alegintzen zan bere andria ta auzokuak konturatu barik etxian sartzzen; olan, bere ustez, disgustu gutxiago izango ebalata.

Jangoikuak daki ze ordu izango zan. Sartu zan etxeko peoran (1) da erantzi zituan oñetakuok eskillaretan zaratarik ez ataratzeko. Poliki-poliki igo zan eskillara-bururaño ta ixil-ixilik asi zan euren etxeko atia zabaltzen. Berekautan (2) esaten ei eban: «Gaur nere andriak pe ez najok sentiduko. Beti olan eingo baneuk ni bai gizona formala, auzuak pe ez litzakiaz jardunian ibiliko. Gañera, zer ba, nori ardura biar jetzak ba nere ibiilerak? Iñun zorrik ezto ten artian nere diruekin nabik, ta kito». Leun-leun etxeko atia zabaldu eban, da zapatak eskuetan zituata, sartu zan galtzutsik. Berriz, itxitzerakuan andriak diño oetik:

—Gautxoria, lagaik atia zabalik, esneduna be oiñezkero laster izango dok eta.

—Or ba nere sekretuok.

—Sekretuak diñok? Sekretuak?... Ezkondu aurretik izan zituan ik sekretuak. Ai! Jakin izan baneu gaur beste. Serenuen andrak pe bere gizonakin nik baiño lo geiago eingo dabiela uste juat.

—Da, orrek emoten deun min? Ba, serenu sartuko non.

—Tira gizon, tira; ixilik egonari, ixilik; petrai-

(1) Peora, atai

(2) Berekautan, berekikoetan

keririk esan barik. Tabernariak ez jaukek serenu biarrik. I, tabernan larregi trabatzen aiz. Pardelorreki!

«Zintzoegia naizelako pasatzen jataz neri onelakuak», esaten eban Gautxoria k berekautan.

Urrengo gabian be or azaldu zan aurreko gabeko moduko orduren batian. Andriak diño:

—Baña, gizon, ori dok xaxaria. Auzuak zer esango juek?

—Ixildu adi, andra, ixildu.

—Ixildu?...

—Baña, ez al dakin zer pasau dan?

Orduan andria autua jakin biarrak zirrikatu eban, da.

—Zer pasau dok pa?

—Amarrak inguruan tabernan gendela...

—Bai, an izan biar.

—Ba,... tabernan gendela Patxiko ezton ba bertan-bera luze-luze jausi konortik barik. Guk izan jitunagu larritasunak. Lelengo, automobil batian, Eibar'ko klinikara jaso jonagu. Ta, ango medikuak etsipena emon da onutz genkarrela bidian ezton ba il.

—Eee!... zer esan dok. Patxiko il? Sinistia be. Enee...!

—Bai, andra, il. A be ez-zonan ba ain gizon txarra.

—Jesus! Jesus! Ori dok atsekabia. Petra bere andra kotxauak jaukak disgustua.

—Zer esanik pe ez ba. Petra'k izango ezjon ba bere gizonagaitik disgustua. Bestaidera izan ba-zonan —andria iltzia—, biar bada Patxiko'k ez jonan izango ainbeste atsekabe...

—Zer ba?

—Ba, bardiña ez talako.

—Baña, zer diñok?

—Ez,... ezebez... ezebez... Igarri barik urten jestan da.

Orraitiok andriaren begirakunan ez zan izan giro; axeriaren jarkeria zirudian.

Da, berriz be negarrari emon zetsan.

—Ai, ai, ai! Patxiko gizajua, gizon on utsa zuan da... —diño andriak buruari obatuta.

—Ona? A be taberna zaiia zonan ba. Enpin, ildakuan biar bada geu be onak izango gaitun.

Biamonian, Gautxorixezia (1) an jua zan auzoko andra guztieri autua eruatera.

—Gaztiak!, entzun al dozue bart zer pasau dan!

—...!

—Patxiko il ei don, tabernan euan lekuan bertan-bera jausita.

—Ezton izango...! Jesus, Maria ta Jose!

—Ene bada! —beste batek—. Gizajo aundia. Biziotxoren batzuek izanarren ondo gizon ona zonan. Santuen lazkotxe biotza jeukanan.

—Orixe bai, —ziñuan irugarren batek—. Petra ez-zonan beti aiskide, baiña oin ikusiko jon gizonik eza zer dan. Gure Erromaldo kin be amaika aserre eindakua nintzonan parrandalaria zalako; baña, zuur nagon a on utsa zeruetan izango dala. Da ni emen alargun. Ai, ai, ai!

Laugarren batek:

—Nik ez-jonat ba il-kanpairik entzun.

—Gure gizon gizajua —diño Gautxorixeziak—, or ibili don gau guztian jo ona ta jo ara: medikuok, abadiok eta gaiñerakuok aztartzen. Gure gizonan

(1) Gautxorixezia, Gautxoria'ren emaztea

lako biotz onekorik ezton erreza billatzen. Esker-
rrak berak Petrari emon detsazen konsuelueri, bes-
tela zoratuko ei zonan.

Errian zabaldu zan bolo-bolo Patxiko'ren erio-
tzaren barria. Izan be, barriak zabaltzeko eztago
emakumia lakorik. Ala be ibil-gonia (1) jazten ba-
-dabe.

Eguerdirutz or agertzen da alarguna.

—I, Gautxorixezia, gizurra don gero Patxiko il
dana.

—Eec...? Zer esatestan?

—Ba, bai; entzuten donana. Petra'ri naigabia
emotera juan non eta an billau jonat «Andra Ma-
dalen» kantatzen. Lotsari makala eruan jonat.

—Gure gizon madarikatu orrek oinbe sakatu
jestan zirikadaren bat. Ez-jakin gauzonik eiten, de-
montriak alakuak. Nik konponduko jonat.

Uste dogu, Gautxorixeziak orduan naiago ebala
Patxiko benetan ilda balego, jentian zer esanagaitik
baño ez-pada be.

Eguerdian eldu zan etxera Gautxoria. Andriak
betozkuakin esan zetsan:

—I burutik einda ago ala? Zer esan zestan bart?
Eure gizur ori dala-ta lotsari ederra eruan juat.
Erri guztiaren barregarri ipintzia pentsau al dok?
Patxiko il dala... Patxiko ta i, ta i ta Patxiko, a ze
pardel paria! Zer dala-ta asmau eban gizur ori?
Eure beranduko etorrera tapatziarren seguru.

(1) Ibil-gona, kalerako jazten dan gonia; gona au beti izaten da
etxean erabiltzen dana baño dotoretxoagoa, sarri paseatzeko jazten da
eta askotan paseatzea atxikiatzat artuaz autua batzeko ta orregaitik,
adarjote alde deitzen jako Eibar'en *ibil gonia*; itz au asko zabaldua dago.

—Tira andra, tira andra; ezari olan jarri. Baiña, zelan sinistu zestanan ba? Kiñua ein neunan barren.

Ala ta guzti be, Gautxoria'k entzun zituan entzutekuak.

XVII

ZEIN ASTUAGO?

Uezaba ta morroiak, soluan bedar txarrak kentzen ziarduela, bedar bat eskuetan artuta esaten detsa uezabak morroiari:

—I, ba al dakik au zer bedar klase dan?

—Ez —diño morroiak.

—A!, kaikua alakua. Astuak pe ba-jakiek eta. Andik lasterrera, bere txandia arturik, morroiak diño:

—Zu, uezaba, da zeuk ezautzen al dozu bedar au?

—Tira, tira, ezautuko ez-juat pa; bai orixe.

—Orduan zeu zara astua.

Arrezkero ez zan giro izango erekingo artu-emonetan.

XVIII

UTS BAT EZ

Eibar'ko pelotari bat, bein, sekulako mozkorra-kin urten zan kantxara. Eta, zer esanik be ez, jent-riak olan ikusi ebanian, dirua bere kontra jokatzan

asi zan. Orraitiok, lelengo tantuetan, ondo be ondo jokatu eban da bera zoian aurretik. Baiña, jentia, dudarik barik galdu biar ebala-ta dirua kontra jokatzen jarraitu eban. Gure pelotaria berriz, anken gailian ostostan eguan, baña, ala ta guztiz be, geruago ta joko sutsuagua ekarren. Da jente guztia arriturik laga-ta, pelota partiduori irabasi eban.

Amaitu zanian, aiskide bat urreratu jakon da esan zetsan:

—Sinistiak pe kontuak jaukaz, olako partidirik ez tok ein eure bizi guztian be. Nola konpondu aiz azkenera arte utsik ein barik jokatzeke?


—Zelan eingo najuan ba uts, lantzian lau pelota etortzen jatazen da nai ta nai ez lauretarikoren bat azertatzen najuan.

XIX

KARGA ARIÑA (?)

Euskaldunok, geure aulkeriz, urtetik urtera euskeria era guztietan makalduaz eta lordinduaz goiaz. Euskalerriko erririk geienetan zarrak gaztiak baño askoz be obetuago dakie euskeraz, sasotik-sasoira mailaka-maillaka, ez bakarrik gitxituaz, bere aberastasuna eskaztuz doiala esango genduke. Gaztiak ez dakie zarrak bezin ondo berbak alkarri josten, ezta biardan moduan erabiltzen be. Gaur, Eibar'ko gaztiekin be ori berori gertatzen da —aintzinan be alan izango zala uste—; zarrentzat *ikusit juat* eta *ikusit jetsat* gauza bi dira. Gazterik geienak barriz

bietara *ikusi jetsat* erabiltzen dabe. Ta, ortik pentsau zeike, irakorle, bati esan ezkeru: «Ire arrebiari *ikusi jetsat*»; txarrerera artu leikiala. Bakarrik, gaurko gazteri ardura bakua eztau ezerk arritzen.



Antzerakua zan bein eibartar gazte batek Plaentxia'ko Turkua'ri esan zetsana be, baña plaentxiatarrak euren erara erantzun zetsan. Ara zer pasau zan:

Plaentxia'tik Eibar'era eguneroko osteria eiten daben Turkua errekadistiari jaso jakona da. Goizian

ba ei zoian betiko moduan Eibar'erutz ta Maltza inguruan Eibar'ko gazte batek, oin *auto-stop* esaten jakon erara, gelditzeko señaia ein zetsan, esanaz:

—Turkua, Eibar'era eruangoztazu?

Da Turkua'k atzeko ots barik erantzun ei zetsan:

—Bai, botaik gaiñera.

Turkua'k, gelditu barik aurrera jarraitu eban, eibartar gaztia kamiño baztarrian agua bete agiñekin laga-ta.

XX

KOMENENTZIETARA

Plaentxia'n, alkartu ziran aiskide bi, ta:

—Lenguan, —ziñuan batak—, zuen taillar ondotik pasau nintzuan eta ikusi induadan. Edozein modutan be aurrerakada aundiren bat ein dok eure karguan; ba, uezaba intzala begitandu jatan. Jauntxo itxura geiago eukan biargiñana baño: garbi jantzita ta eze-be ez eiten.

—Zer uste dok pa? Guk tratua olan jaukagu einda —erantzun zetsan bestiak—, alkarren komentzietara.

—Ee...? Zelan dok ori?

—Bai. Gu, pipia joten bizi gaituk. Uezabak guri, berak nai daben beste pagatzen jeskuk, ta, gero guk pe, geuk nai dogun beste biar ein.

—...?

XXI

TRAPU-TRAPU'REN ZIRIKADAK

Zirikatzaille okerrak pe nun nai izaten dira eta onelakua gendun Trapu-trapu be. Beti, norbaiti zirikadaren bat nundik sartuko ibiltzen zan; naiz laguna edo naiz ostiantzekua, arentzat bardin zan. Gañera, bere fetxurietarako beti moldatzen zan laguntzalliak billatzen.

Negu baten, kuadriila guztia kazara juan ziran Kaztilla alderutz ta asmau eban, betiko moduan, adarra joteko bide bat. Bat ez beste guztiak alkarraitzeko bide bat ein eban, beste orren lepotik barre cite alde, eta atara eben euren arteko eztabaida bat: batak erbikumian okelia zala onenatarikoa ta bestiak «kalamatxinoa»rena —«kalamatxino» au Trapu-trapu'k asmautako kontu bat besterik ez zan—, ostatuko nausia be urreratu zan euren jardunak entzunaz da bere iritzia eskatu zetsen, a be aurraz alkarraituta euan, eta arek pe, bere ustez «kalamatxinoa»rena obia zala. Jardunak aurrera zoiazzen. Ukuzain zan bakarrik ezer ez zekiana; baña, gizonen artian sarri gertatzen dana, ezjakin baten moduan ez azaltziarren, «kalamatxinoa» zer zan ez-ekianak pe bere usteak zituan eta «kalamatxinoa» obia zala esaten asi zan:

—Ni, Sevilla'an soldautzan egon nintzanian —diño Ukuzain'ek—, «kalamatxino» asko jandakua nok.

—Euk arrapautakuak? —luzetu zetsan batek, ia nundik urtetzen eban ikusteko.

—Ba... ez,... an berdura-plazan saltzen jituek.

Ta, bestaldetik, beste batek, barriari eutsi eziñik.

—Sevilla'kuak onak ba-zituan be, emenguak probauko ba-eituke, zer esango ete euke. Ba, dudarik barik, emen eiten diranak izango-txuk (1) munduan onenak.

Atan-orretan, ein eben «kalamatxinuak» arrapatzeko plan bat ta urten ziran gabian zorro batzuek artuta «kalamatxino»tarako asmuan.

Baso-konejuen zulo onduan ipiñi eben lagunetarik bat, zorrua zuluan ebala, ta «kalamatxinuak» urten arte ixil-ixilik egon biar zala esanaz. Jakiña, oni aitzen emonda euken, ostatura itzultzeko.

Beste zulo batera eldu ziranian an laga eben Ukuzain.

—I, egon emen trankil, zaratarik ez atara; gu beste zulo batzuen billa goiazak eta. Egunsentirako arrapauko jituagu dozenaren bat «kalamatxino».

Baña, a an laga ebenian, juan ziran beste guztiak ostatura ta kopa batzuek edanaz amaika barre ein zebeu bestian lepotik; ta gero oeratu ziran.

Barriz, Ukuzain'ek an pasau eban, sekulako izotzakin, «kalamatxino» zulo onduan gau guztia.

* * *

Beste bein, alkartu zan Eibar'ko kalia Pattakia deitzen zetsen lagun batekin da esan zetsan:

—Da, Pattakia, andria ondo jarri dok ala? Languan don Jose medikuak esan zestanez estuasun makala pasau ei dozue.

—Bai gizona, uste-uste barik estuasuntxo bat euki juagu, gibelekua dala-ta.

(1) Izango-txuk, izango dituk

—Estuasuntxo bat bakarrik? Neri don Jose'k esan zestanez eskerrak bera denporaz ibili zana, anka bat kanposantuan eukala ei jeuan da.

—Ainbesteraño ez zuan izango. Guri ez jeskuan baintzat ainbeste inportantzia emon.

—Ez ba, zeuek ez bildurtziarren. Eskerrak don Jose'ri ez ago oin alargun. Onetik librau aiz; eztakik asko. Don Jose portau dan moduan portau-ta errezki akordauko aiz berakin. Erregalotxoren bat ein biar eiskio, merezi jok eta.

—Zer eingo jetsat pa?

—Ara ba, lagun moduan esango deuat. Don Jose sargu-eskaillu zalia dok, da nola nai be i sargu-eskaillutan ain peskari ona aizen ezkerro, sargu-eskailluekin tripakada bat eiteko konsuelua emon biar eiskio. Asko estimauko lauekek.

—Negua dok eta errekan sartzeko egualdi otzak eiten jituk, baña ori baña ez-pok (1), orren beste eingo juau.

Domekia eldu zanian, saria artuta, goizian-goiz, an juan ziran Pattakia ta Trapu-trapu Elorria alde-rutz. Pattakia sartu zan sariakin errekan da Trapu-trapu erreka baztarrian Guardia Zebillik etorren zaintzen.

Ordu betian errekan ibili ondoren, gauza gutxi arrapau eban. Otzak baitzituta dardaraka batian euan Pattakia gizajua. Trapu-trapu bai an majo, kanpokaldian txistuka pasiauaz.

Alakoren batian eiten detsa Trapu-trapu'k:

—I, Pattakia, badakik zer pentsatzen nagon.

—Zer?

(1) Ez-pok, ez ba-dok

—Ori eztala gizonan buru-bidia, sargu mokordo batzuek eta eskallu apur batzuek artzeko, olako tratua artu biar ebala jakin izan baneu, ez neuan ezer esango. Ze, sargu-eskailluen lekuan plumunixia artu biok (1).

—Errazoia daukak, baña, don Jose'ri, bein eruatzen asi ezkeron ain gutxi eruan biarra eztok itxura.

—Bai, ori olan dok, baña lelengo eure osasuna dok; daon otzonekin errekan ikustiak ez jestak onik eiten eta urteik-urten, neu begira egoten geixotu baño len.

Urten eban da errirutz zetozeala esate-tsa (2)
Trapu-trapu'k:

—Errazoia eukan, onekin (3) bakarrik jai daok. Bein sargu-eskailluak eruatzen asi ezkeron, eztok ez itxura ain gutxi eruatia. Potekara bi ezti-txuk mediku bati eruateko, onek bakarrik eskintzia lotsatzekua be badok. Eingo doguna dok, egualdi onak eiten dituan batian geiago arrapau; ta onekin, gaur, biok eingo juagu afari-merianda bat.

Esan da ein. Olakua zan gure Trapu-trapu ziri-sartzaille okerra.

XXII

BIARGIN AZKARRAK

Eskupeta-txispagin bi ziran Plaentzia'n, bata baño bestia arruaguak. Ta nola nun nai izaten diran

(1) Biok, bear dok

(2) Esate-tsa, esaten deutsa

(3) Eibar'en, itz asko azentoak bakarrik aldatzen ditu eta ónekin, *oiekin* plurala dezu, eta onékin, singularra.

zirrikatzalleak ta autubatzalleak, gure auzoko errian be ezin faltau. Olako saltza guztietako perrejil bat, juan zan aretariko bategana.

—Okelerrek bai Okelerrek, egunero berak ba-karrik, zaspi txispa asi ta akabau eiten ei jituk. Sinistiak pe kontuak jaukaz.

Bestiak, somau eban aren autua batu biarra ta beriala erantzun zetsan:

—Ez nok bat pe arritzen, nagi ta alper aundi bat besterik eztok eta.

Emen esaten dan moduan: Bialdu eban autubatzallia (1) txakurran-salan pasiatzera.

XXIII

PURUA ZALAKUAN GILTZA...

Pernando, jai arratsalde artan —ta noiz ez?—, parrandan gelditu zan. Norbaiten lepotik afari dotoria ein eban, oin esaten dogun moduan «aketa» ta «txola» artu be bai ta «txokor» (purua) aundi bat erdi errerik etxerutz abiau zan.

Gabeko orduak —goizekoak ez ete?— aurrera zoiazen eta etxeko atia itxita billau eban. Pernando gizajuak ba-eban naikua biar zutiñik egoten da atemorrolluan giltz-zulua billatzeko zelan izango zan ba gauza.

Ateori zabaldu eziñik ebillela, agertu zan Txanton serenua, amaika aldiz Pernando maitekiro oeratu ebana. Pernando'ri adarra jote alde, asi zan kantuan:

(1) Autubatzalle, *chismoso* (a)

*Ardautxo baltza, zer dakak ik?
Larregi edanak ez gauzonik.
Gizonak ipintzen ba-dakik ik
zutiñik ibilli eziñik.*

—Adarra jotzia baño, obe ingo euke atia za-balduko ba-esta.

—Baña, Fernando, zelan nai dok pa ik atia za-baltzia? Giltzan lekuan puruakin abil barren (1).

Orduan Fernando'k arrituta begiratu zetsan eskuetan zerabilenari.

—Egia dok gaiñera, giltzan orde z puruakin nabik. Ene! nik ein juat eitekua; purua zalakuan giltza erre.

XXIV

MURGIL LUZIA...

Azkenengo gerratian, tekniko aleman bat ebillen Plaentxia ko kañoi-fabrikian, Alemania'rako eiten ziran biarren direttore. Plaentxiarrak diñuenez, arro txamarra ei zan. Bere ustez, ez ei zan bera lakorik.

Plaentxiarrak, aizpietan peskan eiten zaliak dira ta zer esanik pe ez, murgilari onak dirana.

Bein, alemaniarra, ba ei ebillen panpana (2) jot-en, Plaentxia'n ez euala bera lango murgilaririk esaten. Berbatu da plaentxiatar batekin da ein dabe (3) posturia norek murgil luziagua ein. Domeka goizeko bedratziretarako zitau ziran presapian. Alema-

(1) Barren, baiezkoari indar geiagokin zinetsitzeko erabiltzen da Eibar'en

(2) Panpan, *fanfarronada, afán, exceso de confianza*. Panparreria ere ortik etorriko da noski.

(3) Dabe, dute

niarra zintzo juan zan bere ordurako, baña plaen-txiatarra ez zan azaldu beste orduerdi batian. Ta, ara nun agertu zan bizkarrian morrala ta eskuetan ar dau botia zeroiala. Alemaniarrak mendira edo ete



zoian itxuria artu biar izan zetsan, ta arriturik esan zetsan:

—I, baña, murgiila eitekotan gelditu giñuan da i morrala ta botia ei-txuala ator?

—Ni bai, ni egun guztirako najoiak.

Ori entzun ebanian, bildurtu ei zan alemaniarra ta arrio (1) ein ei-eban. Andik aurrera ez ei-eban erabilli panparreriarik.

(1) Arrio, *evadir a un desafío, generalmente por cobardía.*

XXV

ORI TA BA-PEZ IGUALAK

Plaentxiatar zelebriak guzien dako dauke zerbait, arek zirrikatuko ez debelik ezta jai munduan, alabe akatzen batzuek billatzen ba-ditue.

Bein, auzoko, erri nausi bateko, dantzari talde bat jua ei zan Plaentxia'ra. Puntarengo dantzarien famia zeroien da euren ustez ez zan Euskalerri osuan iñor berak aiñakorik, —azaleko itxuraz baintzat—, ez dantzan ta ez ostiantzekoetan.

Baña, plaentxiatarrak konturatu ziran euskeraz tautik pe ez-ekiela, asieran «*Ola lagun*» eta amaieran «*Agur*» izan ezik. Noizik peinian botatzen ei zituen euren batzuek: «*Vamos a tomar un akeita*»; «*Espera, que he de hablar por urrutizkin*»; «*Mañana iremos a la Txadona a jaupa; creo que tocan hasta ei txaneuzkiñ*». Gauza arrigarri onek entzun da, plaentxiatarrak arritzea ez zan arritzekoa. Gutxi falta izan ei jakuen arrika asteko be.

Aretariko batek, zerbait somatu ei eban, plaentxiatarrak euren dako oztasuna eukela, eta batengana urreratuta, esan ei zetsan:

—*Es que, mire usted, yo no sé bien el euzkera, pero mi aita y mi ama sí. Porque, mire usted, yo me apellido Etxegoitia, Roteta, Landazuribekoa y Agirrebeitia; cuidado que soy euzkotar de pura cepa, tengo apellidos como para regalar a los maketos, he mutil.*

—Oba euke ik euskeraz ba-eki, —diño plaentxiatarrak.

Bestiak barriz, igarri zetsan beragaitik zerbait esan ebana ta:

—*Habla usted por mí.*

—Bai, iregaitik pe neuk berba ein biarko juat, ik eztakik eta.

Geroko egunetan be, Plaentxia'n onelako jardunak entzuten ei ziran:

—Or-ba, or-ba, nora eldu garan azkenian; euskera baztertuta Euskalerrria dantzekin salbauta dagolakuan. Kaiku madarikatuak.

—Olako semiak mundura ekartzia baño lau librako ogiak eitia be obe dok. Laukuakin zer jan dagok, baño olakuekin ez jan ta ez jantzi.

—Bai, tajutan gauaz Euskalerrria salbatzeko. Euskal-dantzariak euskeraz ez jakitzia: ogia uts-utsik mausta-mausta jatia modukua dok.

—Ori dok pa. Oingo gaztiak, kanpo-larrosa ta etxe-kardo. Euskaria gure erriaren anima ber-bera izanik, era-bat baztertuta or dabixak (1) inportantzia gutxiagoko gauzekin Euskalerrria salbatzeko asmuetan. Txotxoluak alakuak.

—Txoriburu petralok, apelliduak aldatuta Extremadura'ra bialduko najitxukek.

—Nik, galleguegaitik trukauko naitxukek pa. Ze, euskal dantzari batek euskeraz ez jakitzia, oraiñela eskuetan artu-ta lurrera txixa eitia modukua dok.

Plaentxia'n guziak ziran iritxi orretakuak.

(1) Dabixak, dabiltzak

XXVI

GU KONFORME GINAN

Eibar'ko Frontoi-zarreko eskillaretan urte askuan bizi izan zan eibartar zar zelebren bat ei zan; ziria sartzen atzian gelditzen ez zana.

Parrokiarako organu barria ein biar zala-ta erri guztian etxerik-etxe dirua batzia pentsau zeben. Ta gure agurianera be etorri zan txandia. Diru batzalliak atia jo zeban.

—Organu barria eiteko limosna ezke nator.

Baña, gure agura zarrori be ez zan elixan lengo filan egoten zanetarikua, ta erantzun ei zetsan:

—Ez; laga, laga! Gu, lenakin be konforme gara-ta (1).

XXVII

ARDAUA IZAN BIARRIAN URA

Eibar'ko taberna batian, biarretik urten ondoren, egunero batzen zan kuadrila bat zan. Guztiak ziran edatalle amorratuak ta egunik galtzeka, gaberako erdi txilibrikauta «argi-argi» juaten ziran etxerutz. Arek txurrut zaliak, jan eztakit eingo eben, baña edan bai ugari. Bako bera baño ardauzaliaguak ziran. Arentzako, ura edatia, pekatu mortala zan.

Euretariko batek egun k zeroiazan tabernara azaltzeka, ta norbaitek beragaitik preguntau eban:

(1) Gara, gaude

—Juakin eztok aspaldian agertzen. Itxuria, aren etxian andria asiko zuan frakak jazten. Bestela arri-tzen nok lagunartera be ez etortzia.

—Baña, eztakik ala? —erantzun zetsan beste batek— Eguntxuak jarotiaz klinikan operauta.

—Eztok izango...! Da, ni, ezer jakin barik? Zer jeukan ba?

—Zirrosis.

—Orri zer dok?

—Ba, tripan urak agertu, ta urok ataratzera eruan juen klinikara.

—Orba, orba...!; gero onek tabernariok ardauari urik ez-tetsela eiten esango juek!

Izan be, aren lagun artian ez zan inor urik edaten ebanik, eta bati urak azaltziak ez eukan beste esplikaziñorik.

XXVIII

ONA TA TXARRAREN FILOSOFIA PLAENTXIA'N

Eztakigu norañoko sakontasuna izango eben gure Euskalerrri barruan Sokrates'ek eta Aristoteles'ek; eskola peripatetikaren barri eldu zan ala ez be eztakigu; bañan, Plaentxia'n baintzat, Kant'engandik edo, errazoiak ondo neurtzen ikasi zituen noizbait.

Abadia kulpitxora igotzen zan bakotxian, plazentzitar argieri konprendidu eraitzeko, ez eukan Biblia ko parabola luzien premiñarik. Ba-ekian berak nola berba ein. Zelako lapiko, alako tapa. Bai aukeratu be plaentxiatarrerri euren dako moduko abadia.

Bein, ona ta txarraren ejenpluak ipintzen asi zanian, esan-eban:

—Txoriburu askok diñue, liburu onak eta txarrak, danak irakorri biar dirala. Baña, nik esango neskiue: onak eta txarrak, danak irakorri biar ba-dira! Perretxikuak pe, onak eta txarrak, danak jan deixela!!

XXIX

ERROMA'RA BEGIRA

Aintzina batian, ba ei ziran Eibar'en lagun bi, beti biarrari nundik zirkin (1) eingo ibiltzen ziranak. Euren artian, amaika buruauste izaten ei eben boltzillorako lain diru billatzen. Ta bein, Sanjuanak urreratu ziran eta zine modurako makiña bat ingirau (2) eben, nok daki nundik; zulo batetik begiratuta santuak ikusten zirana. Barraketan ipiñita diru mordo bat irabasteko asmoz, a zer pozik ebitzen. Alkarri esaten ei zetsen: «Oingo munduan, zenbat biar ein biar dan, biarrrik ein barik bizi izateko». Ta, bestiak: «Bai, egia dok. Baña, jenterik etorriko ete jakuk?». Ta bestiorrek laster trankildu eban esanaz:

—Bai gizona, bai. I, ez ari orrekin larritu, inguruan azaltzen diran lelo arpegidun guztiak neuk pillatuko jituat gure makiña orretara. Laga ori nere kontura. Penagarriena, jaiak ain laburrak izatia dok: San Juan, San Juan!, nekez etorri ta bizkor juan!

(1) Zirkin, *esquivar* gogozko gauzak eztiraneri iges egitea

(2) Inkirau, ingurau, *agenciar*

Baña orraitiok, ondo bagara, guk izango jituagu ez-teguak. Besterik ezian alditxo baterako otxinduko (1) gaituk baintzat.



Sanjuanak etorri ziran eta an euken Untzaga'ko plazan euren trepetxuori kajoi aundi baten kontra. Bata kajoi barruan, eta bestia kanpokaldian jentiari diarka: «Jaunak!! Emen daukazue munduko azkenen-

(1) Otxindu, dirutu, aberastu

go adelantua! Zinia!! Mundua ikusi nai dabenak beiratu deiala zulo onetatik!: Paris, Londres, Nueva Yor, Tokio!; danak ikusten dira errial bategaitik!>.

Laster urreratu zan jentia, eta an euazen makiñonduan txandarik artu ezin da. Bitartian, barrukuak ba-ziarduan kirten bati eraiñaz santuak pasatzen; eta alakoren batian, deitzen detsa kanpoko lagunari, ixillekuetan:

—I, makiñia aberiau ein dok eta ezin juat san-torik pasau.

—Ba, konpondik aguro, ainbeste jente zain dau-kagula dirua galtzen gauaz da.

—Ezin baña nik konpondu, etxakiat onen barri ta.

—Ez jetsak ardura; zeozer ein biok!... nai ta naiez!...

—Zer ein neikek baña?

—Ba, edozer. Besterik ezian eure ipurdia erakutsi. Kanpokuak, ori, esan-esatealdera ein zetsan. Ba-ña, bestiari barriz bost inporta zetsan orregaitik, eta ara beste barik frakak bajatu-ta nun ipiñi eban atzia zulo parian.

Ikusten euana Azkoiti aldekoen bat ei zan, eta arrituta esan ei eban:

—Aizu: nik errialekua pagatu det ordea, eta ez det emen ezertxo ere ikusten.

—Begiratik ondo ta zeozer ikusikok (1).

—Zer demontre ote da or agiri dan ori?

Bestiak nasai asko esan ei zetsan:

(1) Ikusikok, ikusiko dok

—Erroma.

—Erroma?; ba, ez du orrek inñolaz ere antzik.

—Antsik (1) ez daukala? Zurrori geiago urre-ratizu, eta laster jakingo dozu antsik daukan ala ez.

XXX

ITXASOKO LANDARAK?

Aiskideen artian «Kerido»tzat ezautzen dogun Joxe Etxeberriatarrari gertautakoa da. Gaztia zala juan ei zan aitakin Briviesca alderutz kazara. Eiñalako euriak artuta mela-mela (2) jo ei eben ango etxe batera eta etxe kuok ain ondo artu ei zituen eze, Burgos aldetik itxuli ziranian, areri erregalotxoren bat bialtzia pentsau ei eben. An, urdei-azpi kuak eta orrelakuak ba-zirala ta, itxasoko zerbait bialtzia obe izango zala erabagi eben. Eta paketetxo batian bialdu ei eben, Briviesca'rutz: legatza, lanpernak (perzebiak) eta txakoli botilla bat, Euskalerriko ardaua zelakua zan jakin deien.

Andik lasterrera izan ei eben erantzuna, eskerrak emonaz. Euren kartan au esaten ei eben: «Eskerrak zuen erregaluegai ik: Legatza, baba-baltzakin ipiñi-ta ederra euan; beste «vinagriilo» ori pasagarria; ta, beste landarck berriz, sartu ditugu ortuan eta ikusiko dogu zerk urtetzen daben». Itxas lanpernak ziran.

(1) Ants, *mal olor, hedor*. Eibar'en, usain, *perfume* edo *buen olor* bezela bakarrik erabiltzen da. Tolosa aldean erabiltzen dan kiratz *hedor*, *onen* aidekoa izango da noski.

(2) Mela-mela, blei-blei; melatu, busti, *mojadura*.

XXXI

EZTAGONA BALEGO

Lenago Europa'n izan zan gerra ondorian, Eibar' en krisis gogor bat izan zan, ta biargiñik geienak biar barik gelditu ziran. Asko basarrietara juan ziran morroi tripatruk, ta beste askok al zebeñ moduan aurrera urten biar izan zebeñ estuasun aretatik. Aora zer eruan ez eukela, asko izan ziran erririk-erri eskian zabaldu ziranak. Ola ta guzti be, ba-ziran umorerik galdu ez-ebenetarikuak. Eskian ebillenatariko bat eldu zan Zarauz'ko etxe batera; atia jo ta urten zetsan etxeoandriak.

—Zuk dezun sasoiakin ere eskian zabilta —galdetu zetsan etxeoandriak.

—Ez dagona balego ez nintzake ibilliko —erantzun zetsan eibartarrak.

—Zeer...?

—Biarra.

—Zer ba, biar barik zaude ala?


—Bai andra, biar barik. Nok pentsauko eban ba, iñok nai ez-ebana be faltau biar zana.

XXXII

ASTO-ANDRIA

Bein Fernando'k, ondo jan da edan ein ondoren, kontua karua zala ta, izan eban sekulako eztabaida zorrotz bat tabernako etxeoandriakin da baita alkarri berba garratzak esan be. Fernando zerbait edanda be ba-zegon da.

Alako gertakizuneri tabernari geienak ez detse kasurik eiten, baña, Mari Piparmin'ek (izena ondo ipiñi zetsen piparmin utsa zalako) ara nun deitu zetsan gure Pernando'ri juezarengana. Juez jaunak



esan zetsan:

—Pernando, iñor insultatzia debekauta dago eta ogetabost pesetako multia pagau biarkozu.

—Baña, nik zer esan netzan ba atso oni?

—Astua deitu zestazun, —diño baztar batetik etxekoandre piparmin arek.

—Ala da, izan be. Nola deituko netsan ba?

—Ba, alakorik —juezak—, andra bati ezin jako deitu.

—Da, asto bati deitu al neike andria? —Pernando'k.

—Astoa —esaten detsa juezak—, animalia bat da, eztau zentzunik eta nai dozuna deitu zeizkio. Gañera, asto bati andria deitziak ez-badauka ezer txarrik.

—Orduan, parkatu, juez jauna; oker ibilli bannaiz, eta atso onckin utsa zuzendu biar dot.

Eta Mari Piparmin'i agiñak erakutsiaz ola ekin zetsan:

—Andria, andria, andria eta milla bidar andria!!!

Gure Fernando urtebeterako nasaituko al-zan.

XXXIII

ZARAN MODUKUA

Neska gaztetxo bat sartu zan Ojanguren erretratistianera. Astuak pe gaztetan politak izaten ei dira ta eskerrak orri. Zarra izan balitz begiak itxitia obe.

Baña, an gero agiri izan zanez, bere usteak eta gureak ez ziran bardiñak. Berari ataratako erretratuak ikusi zituanian, esan eban:

—Ene! Ojanguren, zelako zatarto atara nozun.

—Ez, ez. Or eztago tranparik. Zaran modukua, zaran modukua.

XXXIV

KONBITXA (1)

Eibartarrak, nun nai, plaentxiatarren batekin alkartzen ba-dira, laster asten dira zirrikatzen euren urtera zelebrenen bat entzun naian. Plaentxiatarren umoria barriz amaierarik bakoa da, ta aren urterak atzeko otsik bakoak izaten dira.

Plaentxiako Andramari jaiak urreratu ziran bation Eibar'en gertautakua da.

Eibar'era azaldu zan plaentxiatar bat zeregiñen batzuk eitera; ta bi edo iru eibartarrek ikusi eben da nola ixillik laga? Zirrikatu naian zerbait esan biar da, aretariko batek urten zetsan:

—I, plaentxi, Andramariak laster dituk eta orraitiok bazkaitara ez-pada be, gutxienez afaitara konbidauko gaituk baintzat.

—Bai gizonak, orrenbeste eingo juagu. Etxera juaten naizenian an dakadan listia ikusiko juat eta Sanjuanetan konbidau ninduen eibartar guztieri pasauko jetset konbitxa.

Ederra sakatu zetsen.

XXXV

MEDIKUA TA BERE ANAIA

Arrate balleko basarri bateko maiorazko bat ei zan, zeken txamarra. Anai bat medikua eukan, eta ez ei zetsan ezerk min geiago emoten bere anaiakin

(1) Konbidautza egin

mediku karreraren gaztautako diruak baño. Jan da edanian dirua emotiari be, tira, ainbestian zeritxon; baño, zeri ta medikutzari. Izan be, berak ez eukan fede askorik medikuak geixuak osatzeko gauza ziranik. Arek lenagoko sasimediku zarrak besterik ei ziran. Ta ez oingo, liburuetatik, ibiltzen diran gazte txotxoluak: «Onek oinguok ipuña besterik etxaukek (1); liburuak zer jakin biar juek pa nik zer daukaten. Petrikillo, Sakabitxa, Trukuman ta arek zituan medikuak, arek, da ez beste tonto arro onek.»

Baña, osasun onekua izanarren, gure basarritarra be, beste askon moduan, geixotu zan, gaizki be gaizki jartzeraño. Anaiak jakin ebanian juañ zan aguro basarrira.

Medikuori oeburuan jarrita, asi zan bere anaiorri preguntak eiten:

—Ta, zer sentitzen dok pa? nun daukak min?...

Geixua ixilik. Baña, anaiak ainbeste erregutu zetsan eze, esan zetsan umore txarrakin:

—Geixoak esan ezkeru neu be izango nintzakek medikua. Orretarako dituk ire Batxillerrok, jakituriok eta medikutzok?

XXXVI

PATROLAREN ERIOTZAREN BARRIA

Zapatari bi alkartu dira Plaentxiako kale baten.

—Datorren astian ba al ator zapatarion bazkarrira?

(1) ez-jaukek

—Zapatarion bazkarira? Zer juagu ba datorren astian.

—Eztakik ala? San Eustakio, gizona, San Eustakio gure patroia.

—San Eustakio gure patroia? Bai zera; oin San Krispin dok, neuk dakidanez baintzat.

—Orduan lena (1) il eingo zuan.

XXXVII

PERNANDO PLAENTXIATARRA TA SERENUA

Pernando, lenago askok ez ei eben begi onez ikusten, berak bein baño geiagotan esaten ebana zan: «Auxe dok auxe, bista onakin be ezin najuek ikusi». Geienen eritziz etxekalte bat besterik ez zan. Baña, «*Pernando Plaentxiatarra*» liburua atara zaretik, Plaentxian, beste modu baten ikusten dira bere gertaerak, eta beretzako usteak lenak baño obeak dira. Oin, geientzako, biotz oneko adar-jotzalle bat besterik ez da; iñori gaitzik eingo ez detsan zirikalari bat. Pernando'n pasadisuak daukazen liburu orri eskerrak.

Oin, iñoiz bere neurritik ataratzen bada be serenuak errespetuz beiratzen detsa.

Bein Pernando, farolpian lau ankan gainian makurtuta ebillen da serenuak urreratuta esan zetsan:

(1) lengoa

—Zer dok Fernando, zutiñik egon eziñik ala?

—Ez. Duro bat galdu jatak eta aretxen billa nabik.



Berari laguntze alde, serenua be asi zan duro billa. Baña, egiñalak-ein ez eben billatzen durorik. Serenua konturatu zan Fernando sarri ibiltzen zan moduan zerbait edanda euala ta esaten detsa Fernando'ri:

—Baña, seguru ago emen galdu jana.

—Egia esan, galdu, an andikaldian galdu jatak,

baña leku aretan nola eztagon argirik, an duro billa astia alperrik dala ta argia dagon parera etorri nok billa.

Serenuak, naikua barre ein biar izan eban Per-nando'n lepotik, eta bere linternia atara-ta juan zan duro billa, galdu jakon lekurutz.

Beste bein be, kale baztar batian billau eban lenagoko bezela, lau ankan gañian makurtuta, ta serenuak pentsau eban berekautan: «Gure Pernando, gaur be duroren bat galduta ibilli biar jok». Beragana urreratuz esan zetsan:

—Zer galdu dok, Pernando?

—«Ekilibrixua».

Bai galdu be gogoz, gau artan agekin eutsita be ezin zeikian zutiñik egon gure Pernando plaen-txiatarra.

XXXVIII

EITEN DAN NEURRIAN

Patxiko kamiñeruak ba-ziarduan atxur batekin kamiño baztarrian, ezin igarri biarrian ala denpo-ra-pasa ziarduan. Orretan, Txomin pasau zan albotik.

—Zer da Patxiko; biar asko eiten al da?

—Baj!; pagatzen dabenagaitik...

—Gutxi pagatzen al dabe?

—Baj!; eiten dogunagaitik...

XXXIX

NAI DANA ESATEN DABENAK, NAI EZTANA
ENTZUTEKO ARRIZKUA

Danok dakigunez, Euskalerriko errietan, bai اندرازkuak eta bai gizonezkuak, euren izenez gañera gaitz-izenak izaten dituez.

Eibar'en be, gutxiago ez izatearren edo, amaika ba-dira kaleko bautizu ori artutakoak. Zenbaitek ez dau uste, gizurrezko izen ori, eurena eztanik pe, baña beste batzueri ez jakue gustatzen bigarren izen orrekin deitzerik.

Arrautzia deitzen detsen bat juan zan bein Perikoitxua esaten zetsen (zeutsen) zur, belarri ta iztarriko espezialistarengana, ta esaten detsa:

—Emen natok Perikoitxua, belarri batetik gortuta nabik eta.

Medikua berba gitxiko gizona zan. Jarri erain detsa silla batian da asi zan errekonozitzen.

Beste jarduntsuak, berriz be.

—I, Perikoitxua, neri gero, miñik ein barik ibilli akitx, e!

Perikoitxua osagilliarri ez jakon gustatzen gaitz-izenez deitzerik. Baña, mundu onetako geienak iñoren begiko samarra obeto ikusten dabien letxe, Arrautziak bererik ez eban ikusten. Da, berriz be diñotsa:

—Gauza txarrik ez juat eukiko e, Perikoitxua?

Ainbat bidar Perikoitxua entzutziakin, ernegau zan medikua, bere zenetik atara (1) ta orduan diñotsa Perikoitxuak:

—I, Arrautzia!! ixillik ez-paago zurrut eingo aut!

(1) zenetik atara, *desconcertar*, erderaz *sacar de quicio* esaten dan bezela

XL

KAPORALA'N URTERAK

Astelen goiz-erdia zan, da an zoian Kaporala ixil-ixilik, esku batian baso bat eta bestian azukar-rillo luze bat zeroiazela, Ardantza'ko itxurrirutz. Bestaldetik Txanbolin agertu zan mendiruzko itxuran.

—Zer da Kaporala, itxurrikotik pe bai? —ziero arrituta.

—Bai mutil, atzo be au ein ba-najuan, gaur ein biarrik ez najuan izango.

Txanbolin, arritxuta gelditu zan Kaporalak ura dranga-dranga nola eraten eban begira. Sinistia be.

—Eu nora oia-ba Txanbolin? —esan zetsan Kaporala'k—. Orraitiok mendira juaterik etxan (ez jan) bururatuko. Ba, etxuat uste burutik ain endredauta ibilliko aizenik.

—Larregi gizentzen nagok eta tripi-au bajatze alde, lantzian bein, mendi ibilli bat eitxen asi nok.

—Tira Txanbolin, tira, gorputzari ezaioke emon olako traturik. Tripia bajatzia nai bok (nai ba-dok) etorri ari apopillo neu nagon lekura, laster argalduko aiz.

XLI

NEKE BAKO BIARRA

Plaentxian, biarrian (lanean) ikastera sartu barri zan mutil bati, goiz batian, uezabak esan zetsan arratsaldian Eibar'era juan biar zala. Eta arratsaldian

ez ei zan agertzen mutil ori, nausiak Eibar'erako eukan eginkizun ori artzeko.

Illunabarrian azaldu ei zan mutilla. Uezabak preguntatzen detsa:

—Nundik abil? Arratsalde guztian ire zain da...

—Ni? Eibar'en gizona! Ez-testazu (ez deustazu) ba esan arratsaldian Eibar'era juan biar nintzala?

XLII

TXIRRITA BERTSOLARIA TA ERRATXU'N TXERRIA

Txirrita bertsolaria Plaentxia'n bizitakua da. Txirrita, ezautu diran bertsolari guztietatik barregarriena izan da eta orrek ez gaitu arritzen Plaentxia'n bizitakua dala jakin da. Plaentxia'ko eskolatik pasau ta ezin leike ibilli gatz faltan.

Txirrita zelebria ba-zan be, bere denporan ez-jakon falta izan nork zirrikatu, bañan Txirrita'k beti billatzen eban berari adar-jotze alde ipintzen zetsezen larritasunetatik urtetzeko bidia. Bein, adarra jote alde, bertsuen puntuak «ist»ekin amaitzen zirala ipiñi zetsezen.

Plazara bertsuetara urten ziranian, Zapirain'ek, estuasuntxo baten sartu nairik, onela emon ei zetsan asiera:

*Naiago nuke ba-neuka
zuke dezun ainbat bist.*

Baña, Txirrita'n *bistia*k laster igarri zetsan bere gain barre eiteko gogoak zirana ta itzetik-ortzera, laster bota zetsan erantzun azkarra:

*Guk ba-degu txakur bat
deitzen zaiona List,
atiaren gañetik
egin ondoren pist,
azpiko txulotikan
azkar sartzenda trist.*

Txirrita Plazentzia'n bizi izan zan artian, gertaera bat zala ta naikua astrapala (1) sortu zan eta aze aukeria izan eban gure Txirrita'k bertso-berriak ataratzeko.

Erratxu zanak erosi ei zetsezen pasadisuan zoiazen motxallaren batzuri txerrikumeren batzuek; diñenez, kasta uletsuak ei ziran baña ez orraitioak asko gizentxeuak. Txerrikumok merke artzaiakin gangaren bat ei ebalakuan, artiak artu ezin-da (2) ibilli ei zan Erratxu. Baña, gero izan ei ziran kontuak, auspuakin be ez ei zeuan arek loditzerik. Azkenian, ez gizenak euazelako, baña bai zarrak ziralakoa, txerriok il biarrera eldu zan Erratxu, ta nola oitura zan auzo ta senidieri (3) txerrikia erregalatza, naikua larritasun izan ei eban Erratxu'k zer partidurik ez eukalako.

Plaentxiatarrak asmau ei zituen sekulako ipoñak, txerriak zirala-ta. Pope aurrenengo zala, an juan ei

(1) zalaparta

(2) artiak artu ezin-da, *inconteniblemente (usase bien para gozo, dolor o pena; indiferentemente)*.

(3) Eibar'en eta Plaentxia'n aideeri senide deitzen zaie eta beste toki batzuetako senideeri, famili.

ziran burdiakin urdei billa, eta Txirrita'k orduan
ataratako bertsuak gaur be oindiok agoz-ago erabil-
tzen dira Plaentzia'n. Ara bere atal batzuek:

*Goiko Jaun ona eman zadazu
kantatutzeko grazia,
txerria dala mediante naiz
bertsuak jartzan asia
barbero baten ate aurrian
utzi omen du bizia.*

.
*Txerri orrekin izandu dira
bi familia partian,
erregaluak izan dituzte
senide danen artian.*

.
*Lau arruara ezta eritxi
lendabiziko txerria,
da bigarrena gutxi geiago
baña bai gustagarria;
ia lau ontza lodi zedukan
koipia ere jarria,
aurten goseak ezin legoke
Plazentzia'ko erria.*

XLIII

ERREGE IZAN EZIN

Aberats barri bat. Plazentzia'n bururik aundiña
eukala diñue. Bere txapela, kirten bat ipiñi ezkerro,
guardasoltzat erabili ei zeikian.

Bene-benetako erregezia zancz, bein adarjotza-
lle batek esan ei zetsan:

—Ik pe, diru asko eingo eban, baña erregetzarako eztok balio.

—Zer ba?

—Ba, ogei-errialekuetan ire bururik ezin leikialako kabidu.

Izan be, olako bat errege eingo ba-leukie diru barririk atara ezin.

XLIV

UEZABAK NAI DABENA EITXEN DAU

Basarriko morroiak, domeka gabian, jo eban etxerutz berandu batian, zerbaitx txilibrizkauta (1); etxe-koandriak somatu eban oetik eta asi zan asarreka:

—Oridok mutilla etxeratzeko ordua! Biar izango dituk kontuak solo aldian.

—Uezaba oindiok tabernan gelditu da.

—Ori eztok errazoia. Iri ez jak ardura uezabak zer eiten daben, a uezaba dok eta uezabak nai dabena eitzen jok. Nai ba-jok etorriko dok eta nai ez ba-jok ez.

Morroia betozkuakin (2) oeratu zan. Andik ordu batzuetara, juan jakon etxeko andria esnatuz.

—Tira mutil, jaiki ari. Uezaba edaten apur bat deskuidau dok ta eskillarak igotzen lagundo biar detsak.

—Lagaixozu andra, a uezaba da; nai ba-dau igoko da ta nai ez-padau ez; uezabak nai dabena eiten dau ta.

(1) Txilibrizkau, erdi-mozkortu

(2) Betozko, kopet-illuna, *ceñudo*

XLV

PERRETXIKUJALE ITXUAK

Plaentxia guztian zabaldu zan zurrumurrua ta autubatzalliak pe aoz-ao zerabilen kuadrilla batek perretxiku benenozuak pe jaten zitueia. Eta, esaerak diñuan moduan: sasian zarraparria danian, zerbait izaten da. Bein, aretariko batek beste lagun batekin kalia trink ei eban, da onek preguntau ei zetsan:

—I, jentiak diñuana egia dok? Perretxiku benenozuak jaten dituzuela?

—Itzokuak ba-litzozak ez intzake oin nerekin berbetan jardungo. Jentiak urdiñak, urritxak, kule-truak eta beste olako bost edo sei kiase kendu ez-kero, beste guztiak benenozotzat jaukaz, da obe juek olan jarraitu; bitartian guk, aze tripakadak eingo ditugun.

—Orduan dana eztok gizurra. Sinistiak pe...

—Euk pe nai ba-dok etorri eike afaitara; gaur jan ezindako beste jaukaguz da.

Bestiak berriz, ez gogo onakin baña ikuste alde besterik ezian, juango zan berbia emon zetsan.

Maikada gizona batu ziran, danak perretxikujale itxuak. Konbidau barriori konturatu zan, maitik aparte euan, itxura bako agura-zartxo, ximel da gaizki jantzi bati; kalamidade guztiak beregain izatiarren edo, begi-bakarra, bizkar-okerra ta errena zan gañera. Nun il da jausi ezeukanetariko bat zan.

—Ako itxura bakua. Zein dozue ori aguriori?

—preguntau zetsen konbidauak.

—Orixe dok pa perretxikuak probatzen dituana.

—Sekula olakorik!

XLVI

OGIBITXARTEKUA

Kapela'neko ogitegian, sartu zan bezero bat eta uezabari esan zetsan:

—Zu, Kapela, atzo eruan neban ogiak kukaraxia eukan.

Eta Kapela'k atzeko-otsik barik erantzun zetsan:

—A! ta nik ogibitxartekua (1) kobrau biarrian ogia bakarrik kobrau. Ni naiz, ni, etxekalte.

XLVII

RADIO PRANTSESA

Martin'ek bein diru apur bat aurreratu ebala-ta, kostia-kosta radio bat erostia erabagi eban. Radio-denda batera juan da esan ei zetsan dendariari:

—Ona emon, gero, e?

—Bai gizona, orren dudarik ez euki —erantzun ei zetsan dendariak.

«Philips» bat emon zetsan, oberik eztagola ta, eta gure Martin abiau zan etxerutz pozik asko.

Andria ta biak, ziero umetuta, asi ziran estaziño bat ipiñi ta bestia ipiñi; baña, lelenguak, bigarrenak, irugarrenak eta danak prantsez jotzen eben (2)

Andriak, ernegauta, esan zetsan Martin'i:

—Ederra ein detsuel, radio Prantsesa saldu.

—Bai ete?

(1) Ogibitxartekua, *bocadillo* Eibar'en

(2) Española ez zan izkuntza guztiak, aien dako prantsesak ziran.

—Dudan zare oindiok! Bai gizona, bai, radio au prantsesa dozu. Zoiaz berrido dendara ta trukian española emoteko esaiozue.

Ba-doiá berriz lengo radio-dendara gure Martin ta olan diño dendariari:

—Zu, au, radiu-au, prantsesa da.

—Prantsesa? Tira-tira... Nola izango da ba prantsesa? —Ekitzen da dendaria arriturik.

—Baa... dan bezelaxe. Naiz estaziño batian ipiñi ta naiz bestian ipiñi, beti prantsez joten dau.

—Aaa!... bai ba... —diño batera-batera radio-saltzalliak aua zabalduz—, «kortan» ipiñiko zenduena da...

—Kortan? Bai zera; sukaldian ipiñi gendun! Sukaldian!!

XLVIII

NI, NI NAIZ

Paxan kale-garbitzallia Azalgia'neko tabernako muestradorian euan iztarria freskatuaz, eta atzetik-ara azaldu jakon gizon dotore bat, bere sonbreru ta guzti, ta zerbait preguntau naian esan zetsan:

—Aizu, jauna...

Baña, Paxan'ek ez zetsan laga jarraitzen. Larrri-larri ein da esan zetsan:

—Ee, ee!...; ni ez..., ni ez nok «jauna»... Ni Paxan barranderua nok.

IL

INDARRAREN GORABERA

Uda legor batian Eibar ta inguruko erriak indar barik, larri ebizen. Tallarrik geienak geldituta. Eta, artsalderdi baten Maltza'n alkartuta, eibartar batek preguntau zetsan plaentxiar bati:

—I, plaentxi, Plaentxia'n zelan zabize indarrakin?

—Indarrakin ondo, indar barik gaizki.

L

LENAK PARTZEN

Eibartar batzuek ziran erri txiki bateko taberna batian bazkaltzen. Euretariko bat konturatu zan orman euan erlojuari ta esaten detsa etxeko-andreari:

—Zu, etxeko-andre, zer dauka erloju orrek?

—Eztabil. Eztakit zer emongo neukian ibiltziarren.

Eibartarrok alkarri kiñua ein da; batek esaten dau:

—Au nere lagun-au dozu erloju-konpontzallia, puntarenguetarikua gañera. Oso aitua da au orretan.

Tratua ein eben, erlojua konpontziarren bazkaria duan (1) izatia.

Gure «teknikuori» or asi zan, kollaria ta tenadorakin, batian ikutu ta bestian ikutu, ta olakoren

(1) Duan, *de balde, gratis*



baten ipiñi eban martxan erlojuori. Ibiltzen zala ikusi ebanian, aze poza eruan eban etxeko-andriak. Bestiok barriz, ez asko gutxiago. Ezpanak garbitu ta ba-zoiazan. Eta etxeko-andriak bentanatik deika asi zan:

—Gizonak! Zer da au? Erlojuak ixildu barik kanpaiak jo ta jo diardu.

Eta «teknikuak» erantzun zetsan:

—Ez estutu andra! Etorriko da bere zenera. Atzeratutakuak partzen diardu ta.

LI

EZTAGO GIZONIK!

Aintziña baten, ba-ei zan Plaentxia'n atso bat «Gizon bat aurrekaldera ekartzen destanari, durua beretzat» esaten ebana, baña ez ei zan iñor eldu duro ori irabastera.

Orduandik urte asko pasau dira, ta gaur, iñoiz baño obeto ikusten dogu atso aren eskabidea bete ezindakua zala. Dirua eskintzen ebanez, esan leike, bere denporan billatzeko arrizkua euala, baña gaur, gaur olakorik ez-jako iñori bururatzen. Dirua eskintzia denporia alperrik galtzia litzake. Da baztarren batian gizonik bada, errukitzen gara gizajuakin, ze, aldatzen ez bada zoroetxerako bidia daroia. Orregaitik, gaur iñok eztau nai gizona izaterik, zergaitik bere kidekorik ez leukialako billauko.

Ara, denpora asko eztala, zer pasau zan bertan Plaentxia'n. Ez dakigu zer dala-ta, berbatu ziran

lagun bi, ta ezta-baidan ebizela, bero-bero ein da, esaten detsa bata bestiar:

—I, ez aiz gizonal

Eta bestiak azkar asko emon zetsan erantzuna:

—Ezta nai be. Bestela bakarrik ibilli biarko nintzakek eta.

Ez eukan errazoia makala.

LII

«GURE ETXIAN ZER GERTATZEN DA GAUR!...»

Joxe Moko etxeratu zan gabardi aldian, bestetan baño basotxoren bat geiago *klink* eginda, astrapalia darixola.

—Gure andriak alfonbra barria erosi jok —esan eban etxian sartu orduko—; pantallia be barrixa. Nundik norako diruekin jarabik gure andriak ainbeste dotoretasun? Ixil-poltzaren bat (1) ba-jaukak baztarren batian gordeta.

Kuartuan sartu zanian, Joxe Moko'k eruan eban atsekabia. Andria beste batekin oian.

—Zer andra! gizona be barria billau don ala? Norekin abil i, txatxaliori (2) alakuori?

Oekuak atara zituen kurririkak (3), Joxe Moko'ren kerizia ikusi orduko. Baña, ez gaizki pentsau irakurle. Dana be izan zan Joxe Moko okerreko etxian sartu zala. Auzoko Kalixto'nian.

(1) Ixil-poltza, *dinero secreto*

(2) Txatxala, *insustancial*

(3) Kurririka, *alarido*

LIII

UEZABA TA MORROIA

Eskopeteri sua artu eraitzeko biar izaten dabien muelle-realak eiten ziarduan plazentzitar batek, mutil gazte bat lagun ebala; eta onek, agiñako miña eukalako ez eban biar zan besteko gogor joten malluakaz.

A ikusita, uezaba suak eta garrak artuta euan. Materialak sarri berotu biar ta alperrik ebizela konaturatzen zan, ta agiraka aldi bat ein ondoren, bere zenetik urten da, zer agintzen eban be ezekiala, jurgura (1) gañera igo ta esateko «agiñako miña daukana goian dago»; kastigu orrekin lotsatze alde. Morroian erantzuna: «Gutxi ardura jakona beian dago».

LIV

TABERNARI ZINTZUA

Errotatxo tabernari zintzua zala esatiakin, dana esanda dago. Gauzak ziran letxe (2) azaltzen zituan. Eretan, naiz ardau txarra ibilli edo naiz ona, bere bezerueri aitzen emoten zekiana zan. Ta edatallia barriz neurririk bakua. Ain zintzua zanez, ardau ona erebixala esaten ebanian, an zan erri guztia bere tabernan, ta olan tabernia beterik ikusten ebanian triste txamar azaltzen zan.

(1) *yunque*

(2) legetxe, lez, legez, bezela

—Zer Errotatxo, tabernia bete jente ta kriarak gelditu barik abasto emon eziñik dabillaz da i oin-diock'pe triste ago. Zer nai dok pa, putz einda aberastia ala?

—Ez, olakorik ez; ain ardaun ona dagok eze, pena emoten jestak saltzia. Akabo nere ardaun ona.

Bada-ezpadako ardauna euan batian, sartu ziran iru bezero.

—Ia Errotatxo, ataraixak txikituak.

—Bai gizona, orretxetarako gauaz da.

Euretariko batek:

—Neriari eixok zeltza.

Errotatxo'k, arritutako arpegiakin:

—Tira mutil; alakorik ezaik ein. Ezaixok bota orri zeltzik, uretik len be ondo dagok-eta.

Urrengo ardaun eskaxtxuaua euala ta jenderik ez ba-zan juaten, ate aurrian edo ate-buruan letrero bat ipintzen eban, esanaz:

«EZTA SALTZEN BAÑA GASTATZEN DA».

Bai orixe, Errotatxo'k ez eban lagun biarrrik zaragiak ustutzeko.

LV

AMALAU TXULETAK

Patxiko Garratza, balian lazkotxe mutilla da; jaten barriz gutxik emongo zetsen ur, Plaentxia ta inguruetan. Noiz nai jango leuke arek, meriandatzeko alde, idi-anka bat perra ta guzti. Jan kontu orretarako trebia zan, beti zan mairako prest. lokuun be ez zan mutil txarra, ta bein ein eieban trabesa, baietz amalau txuleta jan iñon laguntasunik barik.

Urten eben batzuek bere alde ta beste batzuek kontra. Eta izentatu eben egun bat.

Berbakizun aundiak emon zituan trabes arek ta baztarra guztietan izan ei ziran iñolazko trabesak.

Bera be, eguna eldu zanerako, kezkatu zan amalau txuleta jateko gauza izango ete zan ala ez.

Aukeratuta euken Aroztegi'ñeko tabernia. Laster jentez bete zan Patxiku Garratza'ren janaldia ikusi naian. Sartu zan Patxiku bere kolore gorri-gorriekin da eldu zetsan bizkarretik Bixente bere lagunak eta belarrira esan zetsan:

—Patxiku, ondo portau akitx gero e. Neure diru guztiok eure alde jokatu jituat eta.

—Ba, egon ari nasai. Irabasita jaukagu ta.

—Irabasi-ta? Gero, amalau txuleta, amalau txuleta dituk.

—Ara Bixente, ezaiock iñori esan, baña posturia irabasita jaukagu. Pruebia eite alde ointxe jan jituat etxian amalau txuleta-ta.

LVI

TXORIA IL, ALA IL TXORIA?

Tallarrian. Uesaba urreratu jako biargin bati ta:

—Gaur, goizian-goiz, kasatik etorrela ikusi aut.

—Bai..., ba-kizu ba... afiziñua ta...

—Ezer il dok?

—Bai... Abendua.

—Demontre! Euk apurtu dituk oin artekuak; abendua il? Orduan orain Gabon-il barik gelditu gaituk. Ederto mutil, illia il. Ik eiteko eztok asko. Abendua il!

LVII

ITZALAK SARTZEKO MUTILLA

Bein, Donostia'ko «*Caja de Reclutamiento*»an, Eibar'ko basarritar bati, kalian biarra eiten eiebana ei zan, soldautzaruzkoan preguntau ei zetsan kapitanak, ia zer ofizio eban. Baña, gure mutillorrek ez ei ekian erderaz. Ta, kapitanak, eskatu ei eban aldatzalle edo interprete bat kintuen artian da plazentzitar batek urten ei eban.

Kapitanak esan ei zetsan erderaz, jakitzeko ia zer ofizio eukan mutil arek.

Basarritarrak zintzo asko esan zetsan garausartzallia zala (1), baña plaentxiatar adar-jotzalle arek ara zelan itxuli eban: «Garau, *tremendo* (2), eta sartzalle, *metedor*». Gero trankil asko esanteko kapitanari:

—*Este es metedor de tremendos.*

LVIII

KEIXAPIAN

Eibar ta inguruetakoz kazariak (eiztari) aze ezteguak izaten dituen udabarrian, pikupean. Egunguentian txori-txikiz betetzen dira keixa arbolak eta eguna argitu orduko an egoten dira zenbait kazari eurak iltzeko prest. Olan kasan eitia debekauta ego-

(1) Garausartzalle, *desporador*.

(2) Garau, Bizkai aldean «*grano*» bezela erabiltzen da eta Eibar ta inguruetan «*grande*» edo «*tremendo*» bezela.

narren, gure kazari amorratuak ez dabe ezer errespetatzen. Izan be kazaria bera da kaziaren aurka ibiltzen dana.

Plaentzia'ko Porru-aundixa ta Osiñondo be orretarikuak genduzen. Baña, sapatuko parrandak, domekan goiz jaikitzeke gogo aundirik ez zetsen emoten, ta geienetan, eurak juan orduko basoko keixa arbolapiak kazariz beteta izaten ziran.

Domeka goiz batian, bart parrandan ein ebela-ta berendutxo jaiki ziran. Diño batak bestiari:

—Ara, nere esanak betetzen ba-dituk kazan eteko bidia izango juagu.

Osiñondo'k, zer ein biar eben aginduak emon ondoren. Eskopetak artu ta tipi-tapa juan ziran mendian gora, eurak eta beste askok begia jota euken leku batera. Ordurako keixapia eibartar kazariz betia zan. Porru-aundixa alde batera eta Osiñondo bestaldera sakabanatu ziran basuan ziar. Eta ertz batetik deitu eban Porru-aundixa'k:

—Oye, Rodríguez! —kazari guztiak entzuteko moduan.

Eta Osiñondo'k beste ezkutu batetik:

—Qué quieres Fernández!

—Aquí están! —erantzun zetsan Porru-aundixa'k.

Berriz, eibartarrok ori entzun zebenian, batak bestiari:

—Mutillak!! emen dituk Guardia Zebillak!

A izan zan perra otsa, al ebanak al eban lekutik.

Gero, Porru-aundixa ta Osiñondo, naikua parre egiñaz, biak bakar-bakarrik patxaraz jarri ziran keixapian.

LIX

DIRU AURRERATZALLE, NAI TA NAI EZ

Astelen baten, lagun batzuek, sekulako ajiakin, fabrikako ate aurrian ziardeen besperako eran geiegiagaitik damaturik ekiñalakuak esaten: «Ojala bost duro eingo ba'leu baso ardauak!».

Nola beste oso eran-zale zan bat, ixilik euan; gañeko lagun batek preguntatzen detsa:

—Ik zer eingo euke baso ardaua bost durora jasoko ba'lebe?

—Nik? Naita nai ez, bost duro aurreratu arte egon ein biar, ta gero, bost duruok aurreratutakoan, baso ardaua eran.

LX

ZARRAZTADA OTSERA...

Bein, plazentzitar bi, Eibar'en egun guztia txurritian pasau ondoren, berandu batian, ba-zoiazzen etxerutz.

Eibar'ko urteran, Urkuzu'ko itur-onduan gelditu zan bata txixa-ciñan ta bestiak aurrera jarraitu eban, bidian arrapauko ebala pentsaurik. Baña poliki-poliki Azitain alderutz urreratu zanian, konturatu zan bestia ez zala agiri eta itxuli zan zer gertau ete jakon jakitzera. Barrena-zarreraño juan zan da iñor agiri ez, Loiola pasauta be ez. Berekautan ziñuan: «Nun sartu dala baña gizon ori. Eibar'ko ardauak ainbeste tiratzen ete juek pa?».

Urkuzu'ra eldu zanian, an billau eban lagatako lekuan bertan, iturri kontran.

—Baña, gizon, zeiten ago?

—Zeiten egongo nok pa. Ez-nok ikusten txixa-eiñan nagola ala?

Bestiorrek, begiratuta esan zetsan:

—Eztok parren txixarik eiten.

—Ezetz? Da ori zaratori zerena dok pa orduan?

Iturri zaratiagaitik ziñuan.

LXI

NUNDIK JAUSI?

Kortaso'neko obran ebillen pioi bat, zurra piparran lazkotxia cukana, ta astelen guztietan erdi lafiauta (1) biarrera juaten zana.

Olako astelen baten laugarren pisotik kalera jausi zan, beste biargin batzuek masia eiten euazen askara. Gizajua, atara eben irabolikaz (2) melamela cin da eta konortik barik.

An ibilli ziran biargin guztiak astorauta, Kortaso bera aurrenengo zala; pipar-gorritzko zurduna zenera ekarri eziñik. Alako batian arnasia bueltau eban da Kortaso'k ein eban dei bat:

—Ia batek azkar ura!

Zenera etorrena asi zan berbak soltatzen da, esan eban:

—I..., Kor... taso..., ardaua... edateko... nundik jausi biar jok pa?

(1) mozkortuta zenbaiten «argotean».

(2) Irabolika, cemento (*cemento hidráulico*'tik noski).

LXII

LUMATU BARRI

Txoria deitzen zetsen etxe-kalte bat ba-ei zan Plazentzia'n. Etxe-kalte ba-zan be andriak ei zitu-
tuan frakak. Ala be ez zan asko larrituko gure
Txoria; edanian ez-ezik, jokuan be ez zan mutil
txarra.

Andriak frakak izanarren ez zeroian bizi-modu
txarra gure Txoria'k. Beran esate bat besterik ez
zan: «Ai, Txoria, ezkontziakin majo arrapau induen
tranpan. Andria lazko zepurik ez dagok», sarri jar-
dutzen zetsan bere buruari.

Kintzena egun batian, orduak aurrera eta ez
zan agiri Txoririk bere *karolara* (etxera). Txori-
xezia (1) kezkatu zan da urten zan bere billa, gu-
txigorabera ba-ekian zein tabernatan egongo zan ta
zuzenian juan zan bertara. Bentanatik begiratu eban
da an eguan Txoria kartetan jo-ta-ke. Kintzenia
oso-osorik galduta eukan da galdutako apurren bat
barriz bereganatzen ete eban, an ebillen gure Txoria
estu ta larri, bere andria inguruan ibilli biar ebanik
pentsatzeka.

Karteri begiratu ta batera-batera soltau eban
Txoria'k:

—Ordago!!

—Emen nagok bai, emen! —andriak bentanatik
erantzuna.

(1) Txorixezia, txoriaren andria.

Ez zan Txoria asko larritu. Jokua irabasi biar ebala ta jarraitu eban andriari kasurik eítxeka.



Baña, laster entzun zan barriz be Txorixezian kurrixkia, ikubilla ipiñi-ta esanaz:

—Txoria!! Neuk lumatuko aut i!

—Berandutxo zatoz ba andra, lumatuta nago-ta.

LXIII

ARRIZGUKO BIARRA

Barrenetxe'n kanteran dinamita kargak sartu zituen da kornetia jota ezkutau ziran biargiñak, arrizkurik ez zan leku batera. Tiruak izan ziran, baña bat gelditu zan ein barik. Luzeruan itxain eben baña ez zan zaratarik. Barrenetxe kezkatu zan ixotu barik edo gelditu ete zan. Baña nor urreratu dudak kentzeko?

Alako batian jaiki zan Barrenetxe, geiago itxain eziñik ta esan zetsen biargiñeri:

—Mutillak: zuen artian eztaok balio eztabenik?

LXIV

«BERORI»

Abade jaunak deitu zetsan dotriñan ebillen ume baten gurasuari ta esan zetsan:

—I, Paulo, ire semiari berbetarako edukaziño pixkat emon biar detsak; ze, ikan tratatzen najok eta. Ba-dakik ori eztana itxura bestien aurrerako be.

—Lelo madarikatua. Orrenbeste jakin biar eban ba. Ikan tratau abade jaunari? ederki orixe. En fiñ, lotsagabe txamarra be bada-ta; baña, neuk erakutsiko detsat ari, gizonak da batez be abade jaunak nola tratau biar diran. Txakurto alakua.

Etxera jua zan Paulo eta semiari esaten detsa:

—I, baña, ik eztakik abade jaunari «berori» deitu biar jakona ala?

—Izena aldatu detse ala?

—Ez!, ze izena aldatu ta ze otxo-kuarto (1). Izena aldatu detselako ez; abadiari errezpeturako beti olaxen deitu biar jakuelako.

Ondoren emon zetsan milla esplikaziño, berorika zelan ein biar zan konprendidu eian.

Urrengo egunian juan zan dotriñara ta soltau zetsazen, abadiari, «berorikada» batzuek. Abadia poztu zan gurasuak (2) bere esana aintzakotzat artu ebala ta mutillan edukaziñua leunduko zala pentsaurik. Ala be, berekautan pentsatzen eban zuka eingo ba-lezkio be naikua litzakiala. Ta modu oman preguntau zetsan:

—Norek esan deuk «berori» ein biar jatala?

—Ba, aitak esan jestak iri «berori» esateko.

LXV

KONTUZ...!

—I, Jerolimo, urrenguan andriakin laztanka abillenian, bentana ondolik erretirau eike, auzuen barrerri izaterik nai ez-pok baintzat. Ze, atzo afal-onduan nere andria ta biok lotsatu be ein giñuan zueri begira.

—Baña, norekin diarduk? Atzo etxetik kanpora ibilli nintzuan barren.

(1) Otxo-kuarto, *qué caray* bezelako esaera bat Eibar aldean.

(2) Emen ere zingularra ta plurala azentoak aldatzen ditu: gurasuak, *el progenitor*; gurásoak, *progenitores*.

LXVI

EIN EBAN BESTE

Domeka gabe baten «Artobero» zerbait edanda, «albo-kargiak», Kontseju osterutz juan zan eta asi zan nasai, txistua atarata ormara zarra-zarra txixa-eiñan, iñok ikusten ez-ebalakuan; eta ara atzekaldetik nun agertu jakon serenua. Bizkarrian joaz, esaten detsa:

—Duro bi multia emen txixa eitiarren.

Besteak, laga txixa eitiari ta laster erantzun zetsan:

—Autzi (1) duro bat, erdi bakarrik ein dot eta.

LXVII

OTELEKO ADELANTUAK

Betiondo Donostia'ra juan zan batian, onenatariko otel batera juatia erabagi eban. Oteleko morroiak, Betiondo'ren basarritar tankeria ikusiaz, kuartu kaxkar batera eruan eban. Onetan esan zetsan:

—Zer uste dok ik, onetarako etorri naizela Donostia'ra? Gure etxian be kuartu dotoriaguak dauaz. Au baño kuartu obero eruan biarko nok.

Ta olan, kuarturik dotorienera eruan eban.

—Auxe dok ederra —ziñuan Betiondo'k beste kuartua erakutsi zetsanian—. I, zertarako dok or dagon *instrumentu* ori?

(1) Tori

—Orri, telefonua deitzen jako. Zeozer biar dozunian, ortik ots-ein eta biar dozuna beriala ekarriko jatsu.

Bakarrik gelditu zanian, abarkak tajuzkoak ez zituztela ta zapatak erostia pentsau eban. Juan zan ba telefonora ta...

—Arratsaldeon...

—Ze numero?, —preguntau zetsen zentraletik.

—Ba... ee..., 45.

Betiondo'k arrituta laga eban telefonua: «Arraiual —esanaz—, au dok donostiarren jakituria ta adelantua, zapatak biar dituranik ez jetsat inñori esan, eta ia zer tamañokoak biar dituran... alajaña!

LXVIII

MEDIKUENAK

Eibar'ko mediku bat juañ ei zan inguruko basarri batera. Errezetia egiterakoan konturatu ei zan lapitzik ez eukala; basarrian be zelan ez-eken, klarrion bat eruan ei zetsen. Bestiak artu ta geixoan kuartuko atian bertan eskribidu eban errezetiori.

Andik lasterrera, basarriko seme nausia jetsu zan botikara atia bizkarrian zeroiala.

Egi-egia ei da; beste ipoin onen moduan.

Andra bat egon ei zan bein medikuanian da arek esan ei zetsan txixa analizatzia komeni zala, zer euki leikian jakitzeko. Medikuorrek ain ondo artu ei eban eze, eskerrak emon da, pozarren juañ ei zan etxe alderutz, bere geixuorrenzat erremedioren bat billauko zetsala-ta.

Biamonian an azaldu zan medikuaren etxera,

plazarako sestu aundi batekin. Kriadiak, atia zabal-
tzerakuan igarri zetsan erregaloren bat zeroiala ta
sekulako ongi-etorriakin errezibidu eban.

—Emen nator ekartzera... —asi zan esaten.

Eta, zer ezan izango neskiaren uste-gabia, ikusi
ebanian sestotik ataratzen papelian batutako gauza
aundi bat... oillarra zalakuan, soperian lazkotxe kir-
ten bateko ontzi aundi bat...

Analisatzeko zan.

LXIX

TXORIEN ARRAPATAKAK

Euskalerriko erri txikietan gaitzizenak beti izan
dau indar asko, eta Eibar'en be oin ainbeste entzu-
tzen ez-pada be, aintziña baten danak edo geienak
ei eben izen ordezeko ori, gure zarrak diñuenek.
Gañera gaitzizen orrek gurasuengandik semeengana
pasau izan dira ta oindiok pe, gaurko egunetan, asko
entzutzen dira gure errian.

Izen orrek zenbaterañoeko indarra euken jaki-
tzeko ara bein «Kukua» deitzen zetsen bati gertauta-
kua. Gertaera orretan azaltzen dira mota guztietako
txoriak; aze parke zoolojikua izan biar eban gure
erriak.

Zarrak diñuenek, gertaera au egia ei da, eta
jaso neban modu-moduan kontatzera noia:

Bein, Urki aldian ei zan, «Arranosia» (1) begira
euala «Kukua» txantxagorrien abia artzera zoiala,

(1) «Arranosia», «Arrano»-ren andriari esaten jako Eibar'en; Mo-
xolo-sia, Moxolo'ren andria. Abizenekin be berdin: Agirre'ren emaztea
Aguirresia; Gisasola'rena Gisasolesia, eta baita izenekin ere, Txomin'en
emaztea Txomiñesia, eta orretara.

ikusi ei eban arbolatik bera jausten. An ingurua ei ziran orduantxe «Zozua» ta «Pajaro», erriko akabatzaile ondo ezagunak. «Arranosia»-ren diarretara, jua da jaso eben min artutako «Kuku» ori «Txirixo-kale»-ko «Txori»-nera. Beragoko ataian euan «Txepetxa» ta aguro bialdu eben, egatzada batian, «Moxolosia» azukonpontzalliaren billa, ta «Eskillasua»-neko mutil-koxkorra «Kukua»-nekeri aitzen emotera.

Etorri zan «Kukusia», miñ artutakuan ama, zotinka, aspamentuz (1) beterik. «Moxolosia» be etorri zan baña sasimediku onek, beretako baño geiago zala esan zetsen, ta bialtzeko Elgoibar'ko «Arrano-batekua»-gana (2).

Bialdu eben «Biriarrua» «Bela»-n burdian billa. Ta ordurako an ziran Eibar'ko autubatzalle guztiak «Txirixo-kalian» pillatuta, euren artian agiri ziran «Erbia», «Txirixua», «Ur-ollua», «Txitxa-lapurra», «Eperra», «Tariña», «Usua» ta abar. «Kukua» zala ta, an zerabizen aztrapala guztiak ikusten. «Galiperra» ta «Mingorra» anaitxo biak pe an ziran baztar batian adurra ta mckua darixola.

Etorri zan «Bela» bere burdiakin da eruan eban «Kukua», uluaka batian.

Txorien gertaera au egi-egia dala diñue, ta babilteke olan izatea, orduan ez zan Eibar'en ainbeste kazari (eizari) ta. Olan kontau zestan baintzat «txori-buru» batk, kardantxillo bat kaixola dotore batian kantatzen zan artian.

(1) Eibar'en erabiltzen dan *aspamentu*, *aspera* edo *asperen*'en kidekoa da.

(2) Elgoibar'ko Arrillagatarrerri, euren jatorriko baserriaren izenez "Arno-atekua" deitzen detse, baña Eibar'en, gaizki aitziarren edo "Arrano-batekua" deitu izan detse.

LXX

ITXASOKO UR-GAZIA

Semiak amari:

—Ama, itxasuko ura zergaitik izaten da an gazia?

—Baña, ez al dakik itxasuko ura zerek gazitzen daben?

—Ez.

—Ezetz? Tira, tira, gizurra jirudik, anbeste denporan eskolan ibilli ondoren orrenbeste ez jakitzia. Bakillauak mutil, bakillauak!

LXXI

DANA BIARREKO KANTARIAK

1958'garreneko San Andres egunian, Eibar'ko patroia denez, «Koral Eibarresa» barriak lelengo aldiz agertzia izan eban. Eibar'ko musika bandiak in alkarturik; Teatro Amaya'n gertau eben jai aldi bat.

Jente asko jua zan egun aretan Amaya'ra, ta gure Bixente be an izan zan. Zer esanik pe ez; nora doian jente, ara doia Bixente. Ez musikazalia dalako, bañan jentia artaratzen danian moda bezela izaten da eta barriketarako bide bat, norbaitek pre-guntau ezkeru be lotsagarria da zer erantzun ez jakitzia.

Gaurko bizi-moduan, kortesiarik eza da guz-tiak edo jende asko arduratzen dan gauzetan ez-jakiñian egotia, ta domeketan, nai ta nai ezkoa

da, modara txukun-txukun jantzita foballera ta konziertura juan, ta orrez gañera Manolo Caracol nungo zuluetatik dabillen jakin, Kubala'n amama noiz jaiotan, Gainza'k zenbat lo eiten daben, Sarita Montiel'en lepoko katiak zenbat perla dituan, Marilyn Monroe'k zelako moko-pañuelua erabiltzen daben, Peporro'k ze-neurritako oñetakuak erabiltzen dituan, Ingrid Bergman urtian zenbat aldiz ezkontzen dan, eta abar. Moda da ta.

Musikia bai, musikia be ederra da, baña, a!, konziertora doiazenen artian ikusten diran jantzi barri dotore arek, arek bai dirala izatekuak. Izan be modia da munduaren aurrerapena. Konziertu batian, musikia bigarren gauzia da. Modia, modia; modara jantzi ta modara ibilli. Lenguak ez-ekien eze-be. Ta, gu ezin geike aintxiñako moduan ibilli; ez orixe. Sinistiak pe... lenguak ain arlotiak zirala: *Kursis*.

Jente artian Bixente asko dira. Bestiak doiazen lekura juan ezik; nora juan?

Eibar'ko koralekuak Amaya'ko saloian lelengo aldiz kantau ebenian be, Bixente ta beste asko juan ziran; gero kritikia be olakua izan zan.

«Nabuko»-ren kantua, jentian txaluetara bi-bidar kantau biar izan eben. Ain ederto urten eban kantu arek, nor-nairi biotza ikutzeko erakua izan zan. Eta ondorengo egunetan ba-zan Eibar aldiaren zer esana, kantariak zirala ta ez-zirala.

Baña, teatrotik urten ziranian, Bixenteri, batek preguntau zetsan:

—Da, zer iritzi jak konziertua?

—Etxakiat ba! Dana biarrekua zuan. Pentsaik, pieza bat bi aldiz kantau biarra izan juek.

Itxuria, gure Bixente, bere ume denporako eskoliakin gogoratu zan, leziñua ezekianian bigarrenez esan eraitzen zetsenekuakin. Eta, orixe izan zan bere kritikiaren erreglatzat.

Gizonak: musikia, musikia da, len da oin, eta modia, moda. Oliua ta binagria ez ibilli alperrik nastatzen, eztira a kartuko. Baña, nere aiskide batek esango leukian letxe: «Jentia, jentia dok; Bixente asko tartian dirala».

LXXII

«EZ DAGOK ZERTAN LARRITU...»

Plaentxia'n ba ei ziran kazari amorratu bi, eurak txatxarkeriekin ez-ekela ezer eta kaza-nausira bakarrik urtetzen ziranak. Baña Gatzaga aldian eta Aizkorri'ko basuetan otsuak, basurdak eta bestelango priztick urritu ziranian, nora-ezian gelditu ziran, eta bein erabagi eben urte bi edo iruan dirua aurreratu ta Afrika'rutz juatia. Esan da ein. Eldu ziran Afrika'ra ta sartu ziran amaiera ba-ko oyanetan ziar.

An be, txatxarkeriekin ez-ebela naikua ta euren opari guztia leoi bat iltzia zan. Jo batera ta jo bestera, leoi billa ebizen eta alakoren batian, amarretakua eitzen daoze la, eurak uste ez-eben orduan, ara or nun agertu jakuen izugarrizko leoi aundi bat. Arek ziran zarrapaztadak eta arek ziran larritasunak. Eskupeteri golpe eiteko aztirik barik, azkar be azkar jaso zituen anakak urren euan arbolarutz. Batari arbolan gora igotzeko aztia emon ei zetsan baña bestiari ez; da, an asi zan arboliari bueltaka leoi erraldoia ondorian ebala. Goikuak pe, zerbait esan



biar-da, asi zan poza emote alde:

—Ia Periko,... Jarraitu olaxe!... Ez obcidu!, i baño lenago nekatukok-eta.

—Ez dagok zertan larritu, ez najok berialakuan arrapauko, buelta biterdiren bentajia jaroiat-eta.

LXXIII

OKERREKO LEKUAN

Eibar'ko pelukeria batian sartu zan itxura bako gizon argal bat, azala ta azurra bakarrik agiri jakozen. Kokota, igarra ta ximela eukan. Pelukeruan sillan jarri zanian, esan eban:

—Arreglaidak kokot au.

Da pelukeruak, kokotetik begiak kentzeka, erantzun zetsan:

—Ori ez emen. Okerreko lekura jo dok. Juari apopillo Txaltxa'neko tabernara; ango txuletak arreglatzekua dok ori.

LXXIV

ZALDIAK JASOTZIA BAÑO GAUZA
ERREZAGORIK...

Plaentzia'ko kale batian, lurrera jausitako zaldi bat jaso eziñik ebillen gizon pilla bat. Atan-orretan, an pasau zan tute jokuan parerik bakua zan Itxurbe, eta begira gelditu zan, esanaz:

—Tira mutillak, gizurra jirurik ainbeste lagunen artian zaldi mokordo bat altzau ezin-da zabiziena. Ainbeste kopla barik, nere denporan, amaika zaldi jaso izan jituat.

—Zelan? —galdetu etsen bat-batian.

—Zaspikuakin.

LXXV

BIETARA KONFORME

Erregen aurretxean zan. Umia arrantza batian negarrez euan ta amak ixiltze alde:

—Ixildu zaitez. Ume negartieri erregiak eztetse kopiñik (1) pe ekartzen, eta negarrez jarraitzen ba dozu eztira pasauko erregiak.

—Eztetsa ardura. Maistriak esan zestan, ez jua-teko eskolara erregiak pasau arte, ta pasatzen ez ba-dira, eskolara juan biarrik ez.

LXXVI

GALDO-TXIKI'N ZIRIKADAK

Galdo-txiki'n zenbait zirikada, errebentagarri-xak dira. Liburu onetan agertzen diran ipuñetatik bat baño geiago beriak dira.

Gizon zelebte au ondiok Eibar'en bizi da. Jesuita ta euskeltzale fiña izan zan Erromaldo Gal-dos'en anai bat da. Jesuita bera be ez zan izan atzian gelditzekua, arek pe ba-zituan bere zirikadak. Ezauna da Azkue, Euskaltzaindi'ko zuzendariakin, Erroman gertau jakona; eztakit zelako funziñuak zira-ta, kanonigotik berakorik ez ei eben lagatzen Capilla Sixtina'ra sartzen, eta Azkue zana, penaz ei zan Capilla Sixtina ikusi barik itxuli biarrez; baña, atan-orretan, gutxiën uste eban lekuan, ara

(1) Kopin, *muñeca*.

nun tope ein eban gure Galdos'ekin, eta zer pasatzen jakon kontau. Galdos jakiñaren gañian ipiñi zanian azkar jaso ei zituan ankak. Sartu ei zan ate batetik eta andik lasterrera an azaldu ei zan eskuetan kanoniguaren soñekuak zituala, ta, eskerak berari, Azkue jaunak kanonigu jantzita ikusi ei eban Capilla Sixtina. Or nundik izan eban Azkue'k kanonigu izateko bidia. Ori Aita Galdos zalalako, ba, Galdo-txiki, bere anaia izan ba-litz, seguru gare Aita Santuen erropak ingirauko zetsazena.

Galdo-txiki ziri-sartze kontuan atzian gelditze-kua ez-pazan be beti izaten zituan bere inguruan beste adar-jotzalle batzuek pe axaxa emoten, bere-ren bat ein deixan. Bein, trenian, Maltza'n gelditxuta euazela, andenian zutiñik euan gizon morrozko bati, beti «badago bat» esanaz desafixuka ibiltzen zan Arrate-balleko bat ei zan. Lagunak tentau eben esanaz: «Ori bai ori gizona ta ez i, txiki ziztriñori». Galdo-txiki'k berriz azkar ipiñi zetsen trabesa, baietz ari matralleko bat emon, ta beste lagunok ezetz.

An eun beste gizon erraldoi-ori, andenian, trenetutz begira ta trena martxan asi zanian, Galdo-txiki'k, trenetik, luzetu zetsan errebeskara bat ta an gelditxu zan gizon morrozkoa ikubilla altzau-ta sentellak jaurtzen, ta ez gañera San Juan eguneko arpegiakin. Baña, gure Galdo-txiki'k trabesa irabazi.

Beste-bein, ba ei zan Eibar'en olako gizon serixuan-serixoz grabia zan bat, aberatsa ei zan eta egunero pasiatzera juaten ei zan, makilla dotore bat eskuan ebalá; baña orduango Eibar'en ez izan iñor libratzen gaitzizenen batetik, ta nola jentia uskeria bategaitik uxatzen zebanetarikua zan, «Auspua» dei-

tzen ei zetsen, ta ez ei zetsan ezerk su geiago emoten berari «Auspua» deitziak baño. Baña ainbat txarrago beretzat. Orduan, gaitzizena ontzat artzen ez-eben guztieri adarjotze geiago eitxen ei zetsen. Izan be, adarjotzalliak, adarra jotzekuak biar ditu, eta onek minberatzen diranak izaten dira, ta ez jamonik eitxen ez-dabienak. Barriz, Galdo-txiki'ntzat nola e-zan dotorerik, aberatsik ta serixurik, ari be bereren bat eitia bururatu jakon.

Egun baten, Elgoibar'ko auspu-konpontzalle bati bialdu ei zetsan errekaia, juateko Eibar'en ulexa lekutara, auspu bat cuala konpontzeko ta. Juan zan auspu-konpontzallia «Auspua»-nera. Auspua konpontzera etorrela esan ebanian, makilliakin aurrian artuta atara eban kalera elgoibartar gizajua.

Baña, Galdo-txiki'ri be, bere azañak, guztiak ezetsen ondo urtetzen. Bein, olako fetxurixaren bat ein ei zetsan Elgoibar'ko Artaso pelotariari, eta Galdo-txiki gizajuak kristonak artu ei zitxuan.

Gero, bein, frontoian Artaso'n pelota partidua ikusi ondoren, bertako gora-berak kontatzen ziar-duela, euren arteko batek esan ei eban: «Artaso'k gogor joten jok». Ta, Galdo-txiki'k: «Etxakat nik iñork esan biarrik Artaso'k gogor joten dabena; ondo probauta jaukat».

LXXVII

ZIRIKALARIARI, ZIRIKALARI-TERDI

Txomin, egun batian, aspamentuz beterik, lagunak zirrikatzen ebillen, eskuak igurtziaz esanaz:

—Gaur afaitan aze perretxiku jana dakadan. Gure esnedunak iru dozena perretxiku erregalau jeskuaz da.

Lagunak igarri zetsen eureri inbiria emon nairik ebillena. Ta Txomin jua ondoen, euretariko bati gogoratu jakon tranparen bat egitia. Alkarraitu ziran eta illuntzian bialdu eben mutiko bat Txomin'en etxera esanaz:

—Juari Txomin'en andriagana ta esaiok afaitarako gertu daukan perretxiku kazuelia emoteko; ze, kanpoko lagun batzuekin konpromisotxo bat daukala Txomin'ek ta eurekin tabernan afalduko dabela. Ta gañera, euri tropinatxo bat emoteko errekauna. Juari azkar, an aixelakuan emen.

Aguro (1) azaldu zan mutikua kazueliakin, barez-barez, Txomin'en andriak peseta bat propiña emon zetsala ta.

Egun aretan, Txomin'en lagunak afari ederra ein eben. Oindiek eztakiguna da, Txomin afaitara jua zanian, euren etxean zer gertau zan.

LXXVIII

ZERUKO ATE-ZAIN

San Pedro'k ziñuan plaentxiatar bati:

—Komunerañok najoiak eta gelditu ari apurtxu batian ate-zain.

Or nundik nora ein zan, una baten baño ez-pada be, plaentxiatar bat zeruetako ate-zain. An zan laster bat ate joka.

(1) Aguro, azkar.

—Nor da?

—Rusia'ko bat naiz.

—Ba, emen eztagok komunistentzako lekurik.
Zuek ifrañura.

—Baña... jauna...

—Zer jauna ta mauna. Ifrañura esan juat!

Andik gerotxuagora agertu zan beste bat, a be
ate-joka.

—Nor da?

—Amerikar bat.

—I purgatoriora, ta azkar gañera.

—Baña, gu, Aita Santua'n lagunak gara barren...

—Zuek, Aita Santua ta mundua, «jazzakin» da
Koka-kola'kin nastau dozuez. Purgatorioakin pozik
egon eike.

Berriz be atia.

—Nor da?

—Camilo Ferreirus, gallegoa.

—I Eibar'era.

LXXIX

AJIA TA GIZONKERIA

Astelen goiz baten an euan tallarrian Zozua dei-
tzen zetsen bat sekulako ajiakin zutiñik egon eziñik.
Uezabak ikusi eban eta beragana urreratu zan.

—Gaur be ba-dok pa ik zeozer.

—Bai, atzo be «alondigako txakurrak» aginka
ein jestan.

—Sarri pasatzen jaz iri alakuak, ori dok fami-
lixako gizonan xaxaria; astelen guztietan bardin.
Gañera, iri medikuak ezeuan ba edana debekatu.

—Neurritik edateko bakarrik esan jestan neri, ta nik, esana betetziarren, basotik edan biarrian azunbreko neurritik edaten juat.

—Baiba, ta gero auxe, ajia galanta, gorputza ondatu, dirua galdu ta osasuna makaldu; lotsatu be ezeiz eitxen gañera.

—Ajiagaitik lotsatu? Euk sekula eztok ajerik eukitzen ala?

—Nik, ez!

—Bueno, bueno; euretako txarrago, nik ez najuan ainbeste esaterik nai, baña ganauak pe, astele-netan, etxuek ajerik eukitzen.

LXXX

LETE TA INURRIETA, PLAENTXIA'KO BERTSOLARIAK

Plaentxia'ko erria, ain umoretsua izanik, ezin zeikian bertsolarik barik egon. Ez neuke ukatuko, umorian aldetik, Txirrita'n eskolia be Plaentxia izango ez zanik. Plaentxiatarren añako zirikalarririk ezta sortu Euskalerrri guztian. Bertako zenbait bertso ezautzeko Juan Jose Lete ta Benantzio Iñurrieta ekarriko ditut (1).

«Iriarena» bertso famatuak, alde guztietan ezautzen dira, donostiarrak zirrikatzeko kantatzen dira. Baña, eibartarrak, plaentxiatarrentzako diran moduan kantatzen dituez. Bein, eibartar bat kantatzen asi zanian:

(1) Iñaki Lete, nere adiskide ta Juan Jose'zanaren semeari eskerak, bertsu onek gorde izan dira.

«Sekula ere ezta sartuko
 plaentxiatarrik zeruan,
 ez duelaġo meriturik
 irabazitzen munduan...»

hete'k laster asmau eban erantzuna:

*Au entzutian, plaentxiatarra,
 San Pedro-gana juan zuan,
 eta esan jotxan: Parkatu jauna
 damuturik naiz gaurkuan;
 umore oneġo dantza zalea
 beti izan nintzan munduan,
 argatik ezin geldirik egon
 «Irikuaren» soñuan.*

*Irri-parrez da arpegi alaiz
 dio San Pedro'k orduan:
 Sosega zaitetz, parkatzen dizut,
 exeri lengo lekuan;
 zu bezelako gizon alaiak
 bear di:ugu zeruan.
 Plaentxiatarra, gelditu zaitetz
 betiko nere onduan. (1)*

Donostiarrak pe, bada ez-pada, ikasi deixezela bertso onġ, iñoizko denporan defenditzerik nai izanetzkeru be.

.....

(1) Bai Plaentxia'n ta bai Eibar'en, bertsoġiñan asten diranian Gipuzkoako euzkerarako joera dabe. Berdiña gertatzen da Bizkai'ko erri askotan be, ta Gipuzkoa'ko bertsolariak geiġo zabaltzen diralako izan biar da oitueru ori.

Lete ta Iñurrieta lagun zarrak, gerriak sakabatu zituan munduan ziar. Urte batzuek pasauta, Iñurrieta'k jo eban etxerutz, baña Lete bere lagunak ez eban izan aukerarik berriz Plaentxia zapaltzeko ta erbestian ezautu eban bere eriotza. Euren kartarik geienak alkarri bertsuetan egiñak dira, eta plaentxiatar onak ziranez, umoria ezin faltatu.

Lete'k, bere batian, esaten zetsan Iñurrieta'ri, ez cukala berak añako bertsuetarako etorririk: «Bertsoetan erantzun nai nikek baña... nere tellatupeko ganbara zarrian poxpolua itzali dek nunbait eta etzeok ispiraziorik...». Baña ondoren au luzetzen detsa bere kartia amaitzeko:

*Jaso ditudan ire bertsoak
oso ederki egiñak,
Iñurrieta'n ateraldiak
beti oi dituk berdiñak...*

*Ikusi diat jarri aizala
bertso lanean nagusi,
jardun ta jardun egiñagaitik
nik ezin diat ikasi;
maixu aizala igartzen diat,
nik obe diat etsi.
Jarrai nai ba'dek ondoren baña
ni ba'nijoak igesi...*

Iñurrieta'n erantzuna au izan zan:

*Artu dedala adierazteko
bertso au jartzera nua,
aitzaki batzuk asieran baña
ondo daukazu burua,*

*prosan asi-ta bertsoz amaituz,
zu, neretzat eredu,
poxpolorikan ez dezu baña
bai orraitio*k* txiskerua.*

.

Iñurrietari, kartzelatik urten berri, karteria oztu
ei zetsen eta ara zelan aitzen emon zetsen alkarri,
lapurretiaren gora-bera guztiak eta zerbait geitxua-
go, bertsuetan idatzitako kartetan:

Lete'k:

*Diru geiegi erabiltzea
sarritan kaltegarria,
ala ere, berriz, ondo gordeta
ez ba'dago karteria.
Joxe Leon'ek, atzo illuntzian
eman ziaken berria,
pena artu diat Benantzio'ri
gauza ori gertatzia.*

Iñurrieta'k:

*Zorioneko diru poltzia
ziradelako arrapatu
asarre txamar ibilli naiz-ta
ori ezin neike ukatu,
mundu onetan poza ta penak
dana*k* biar dira artu.
Txotxolon batek billatu zidan
t'ala ere ez nintzan oartu.*

Guzia garbi esan nai dizut
 jakitun ein zeralako,
 lenago ere gertatu dira
 lurrian ainbat olako.
 Orraitik neri gerta zaidanaz
 bentajan naiz aterako
 kartzelako zertifikaduak
 eraman zizkidalako.

Orra nundikan etorri leiken
 gizonaren zoriona,
 tamalgarria zan ba benetan
 espetxeiko oroimena;
 orain berriro gizon garbia
 onrraua eta zuzena,
 arrotzen ere asi naiz, ote
 naizen danetan onena.

.

Plaentxian nola eztan iñor gaitzizenik barik, Letetarrak «Sakristauanekuak» ziran ta Iñurrietarrak «Santuanekuak». Ta, alkarren bertsolari(zarako trebetasuna goratzen asi ziran batian ara zertaraño eldu ziran:

Lete'k:

Naiago nitek zerbait baneki
 gaur iri erantzuteko,
 larri-aldi au zetorkidanik
 ez nian uste nik asko.
 Ni ez nauk iñor bertso lanian
 irekin jarraitutzeko,
 geiago aiz ta obeitzen diat
 besterik ez diat kantauko.

Iñurrieta'k:

Zure bertsoak eragin dit gaur
zarrada izugarritzko,
geiago danak gutxiago danai
obeitzen dio agitzko,
lagun zar maite biotzekoa
ez dago ainbeste arritzko,
ni apaizera iritxi ezin da
zu aintzinatik obispo.

Lete'k:

Poz eman didan notizia bat
artu diat igandikan,
ez netzekian orain artean
obispua nintzanikan...

Berandua dek neri emateko
obispo nonbramentua,
iru, oraindik, ein berri dituk (1),
nun zioek ba oaiñ lekua?...

Monagillua izandua nauk,
ez nauk igo ortik gora,
baña, ez diat nai izan obispo
Euskalerritik kanpora.

I bai aizela agintaria
patxara ederrekua,
apaizera iritxi ez baña
kolpetik Aita-Santua.

(1) Bizkai, Gipuzkoetan obispoak egin barriak ziralako.

Iñurrieta'k:

*Urbil luzaro bizitu giñan
alkar ezagutu arte
ikusten danez ordutik ona
etzera aldatu zu ba'te,
eskuan euki-ta etzenduan nai
lenago izan alkate (1),
orain obispo nai ez ba'dezu
sakristau gelditu zaite.*

*Uste gabetan pelotan ere
sarri galtzen da tantoa,
zure bigarren bertso orretan
sartu dirazu zirikoia,
lenagotik ere ba'nekin nik
nintzala linajekua,
ni baño lenago nere aitona
izan zan Aita-Santua.*

Lete'k:

*Jerarkietan orain jetxi nauk
azkenengo mallaraño,
naiago diat sakristau izan
alkate ta obispo baño...*

*Gauzak egoki gelditu dituk,
bañoitza bere tokian,
izanduko nauk sakristau, baño...
Aita-Santua'n azpian.*

(1) Lenago, errepublika denporan, Plaentxia'ko alkate izatia ukatu ei eban; ori dala ta sartzen detsa Iñurrieta'k ziri ori.

Lete'k, eriotzara inguratu zanian be ez eban umorerik galdu ta bere azkenengoetako kartetan ara zer irakortzen dogun:

*Eztula bear dik izan
guretzat laguna,
eztula ixildu ezker
jun dek eztulduna...*

LXXXI

AINGIRIA LABANA DALA

Peskan ziarduala arrapau eban izugarritzko aingira bat, ederra, aundia ta gizenaz gañera aingira guztien bezelako laban-labana.

Eta nola lanaren zarata txarrak ziran Plaentxia'n, «pelotia» eitxe alde, bere lagun bati esan zetsan eruateko a aingiria fabrikako nausiari.

Andik amabost bat egunera, biarrik ezala-ta, beste batzuen artian bota eben, fabrikatik, gure gizon ori.

Eta bere lagunagana juan da, onela diño asarre bizian:

—Aingira irristakor madarikatua! Despatxau najuek ba... ta ondo ein jostek gañera. Aingira zikin bat dala ta eztala, neuk akordau erain jotxet eta... Bai,... beinke...; aingiria labana dala!

LXXXII

MEDIKUA ARRITXURIK

Sartu zan geixo bat medikuaren konsulta-lekuan. Errekonozidu dau, ta esatetza:

—Aspaldi al zabiz geixorik?

—Bai jauna, ta mediku askokin ibilli naiz gafiñera. Batzuegandik etsipena be artu dot; baña nik oindiok bizitzia nai neuke.

—Takorri (tabako) asko erretzen al dozu?

—Ez, jauna, nere bizi guztian eztot erre.

—Ta, edan?

—Edan be ez.

—Zuk, biar ba-da, larregi jango dozu.

—Ez ba, beti izan naiz jatun txikia.

—Jokuan larregi ein eta erretiro txarrak edo izango ditxuzu, seguramente.

—Ez ba, jauna, egundo ez naiz izan jokolarixa ta beti goixago oeratu izan naiz.

—Bueno; ta... andrakumiekin ibiltzen al zara?

—Ez, eztot olako bizio txarrik.

—Orduan zuk, ezer ez eitzekotan, zertarako nai dozu bizi?

LXXXIII

ARATOSTE BATZUETAN

Txirixo-kalian bizi ei zan Batista kojua, Eibar'en kaxagiñik onenatarikua. Gu ez giñan eldu ezautzera, baña zarrak alan diñue.

Jan-edanian ta umore onian parerik bakua, ta

erriko autuetan aurrengua. Orraitxiok ez ei zan beste jan ta edan zale asko bezin alperra. Biargiña ei zan. Nere lagun batek esango leukian bezela: gijajo bat; beste ezertarako gauza eztanak egiten ei dau biarra.

Ez ei zan Eibar'en katurik pe a ezagutzen ez ebanik: berbetan zelebria, beti barria darixola, ta erriko jai ta jolas guztietan aurrengo tanboliña. Saltzia nun, Batista kojua an.

Aratoste batzuetan koko (1) jartia nai ei eban, baña iñok ez igartzeko moduan, eta ori ezan gauza erreza. Bere errena, bera lako barregarria zan, ta ez-euan a disimulatzerik.

Zelan jantzi jentia ez igartzeko? A zan buru austia.

Larregi ekian berak, naiz tximiño jantzi edo odoloste jantzi, urtero moduan, kalera azaldu orduko ezautuko ebena.

Onetan, bururatu jakon asmu on bat: Untzaga'ko plazara agertzia Batista kojotzat papelaria (2) egiñaz.

Arpegian zirri-borro batzuek ein da, atera ei zan kalera, ta erri guztia arriturik gelditu ei zan. Koko arek aiñ ei eban Batista kojuaaren aide berdintsua; aren errenkako ibillia ta aiñ antzerako arpegia, edo zciñek ber-bera zala pentsatzeko moduan. Aretzek bai eukala bere tajuria. Ez ei eukan meritu makala Batista kojuan papelaria aiñ ederto citiak.

Kokotzat ebiilen Batista kojua. Danen barregarri izan ba-zan be, Batista kojua berak ez ei eban gutxi gozau aratoste aretan.


(1) Koko, *disfraz*, koko-jantzi, *disfrazar*.

(2) papelaria, antz ematea egiñ, *imitación*.

LXXXIV

AITA DONOSTI EIBAR'EN

Aita Donosti, oin dala urte asko Eibar'era etorri zan konferentzia bat emotera. Kaputxino arek eukan



bizkortasunak, arrituta laga eban Eibar'ko jentia; berak berba ta berak bandia dirijidu.

Etorri aurretik batedon-batzuek kontau biar izan zetsen Eibar'en «gorri» asko zeuala ta kontuz ibil-

tzeko. Baña, Aita Donosti pralle jatorrak eziban eibartarrontzako uste txarrik eta Untzaga'ko kieskuan trankil-asko dirijidu eban gure erriko bandia. Bakar-bakarrik, eibartar zebreren batek, Aita Donosti ikusi ebanian, bere batutia altzatzen, esan ei eban: «Bixar egualdi ona; prallexuak makillatxua gorutz altzau jok-eta».

LXXXV

AUNDIKERIZKO TALLAR BAT

Eztakit egia izango dan, baña diñuena da baintzat. Aintziñako Eibar aretako tallar batian sozio bi ei ziran. Lelengo tallarra, eskillarape batian ein ei eben sozio biok, baña kanpoko itxuretan ez ei zeben txatxakeriarik; aren artian dana aundikeria edo aundikeri naia ei zan.

Tallarrian norbaiti sartu biar zanian, a sartzeko lekua eingo ba-zan euretariko batek urten biar izaten ei eban. Baña euren karta-buruetan, sekulako fabrika galant bat agertzen ei zan, tximiñia aundiak keia dariola zituala; ta orrez gañera, ango trenak, arioplanuak eta itxas-ontziak ez ei ekan akaburik. Ta, dana zertarako ta galtzatorratzak eta tronpa-puntak egiteko. Orrez gañera, enkarguz, edozelango biarrak artzen zitxuen. Artu bai, naiz ta erlojuak pe, artu bai baintzat; gero urten, noik daki zerk urtengo eban.

Eta, iñoiz, euretariko batek Eibar'tik kanpora osteraren bat ein biar zebanian, sonbreru ta guzti

juaten ei zan. Bein, orrelako biaje batera urten zanian, eskeko batek dirua eskatu ei zetsan, eta gure aundikerizko uezaba orrek, erantzun ei zetsan: «Gero, ni ez naiz itxuriari begiratzekua».

Suerte on bat izan ei zebeñ eta tallar aundi-txuago baten jabe ein ei ziran. Ogei metro kuadru inguru ei zeukazen baña bai ondo aprobetxaut: atiari takillatxo bat eregi ei zetsen eta bere parian, sei metro kuadru inguruko, olezko departamentutxo bat ofizinatzat, ta barrukaldian tallarra.

Tallarrian uezaba biak egiten ei eben biarra, ankiakin erainda ibiltzen zan tornu zar bat eta firi-fara bation. Barautsak (1), epaikiak (2) ta gañerako erremintxa guztiak epetakuak ei zituen. Ofizinan berriz, eskribitzeko-makiña moduko batekin neskato bat eukitzen ei eben; ez ei zekian makiñan eskribitzen baña bai berak bete biarreko leziñuak ondo artuta ei euan; biajanteren bat edo azaltzen zanian eta uezabagaitik preguntau, tallarrera ostera bat eiten ei zeban —ango tallar guztia oletik bestalderakua zan, guztiz lau metro kuadru edo—, ta andik aldi batera agertzen ei zan esanaz: «Ba, tallarretan ziar ibilli naiz baña eztot topatzen uezabarik; ibilli naiz makiñetan; almalenian, akabatzaletan, ta beste toki batzuetan, baña einak-eiñ ezin izan dot billau. Naiko ba-zendu geruago etorri edo pixkatian itxain, iru edo lau biargin bialduko nituke bere billa. Automobillian norabait juan ez-pada baintzat, ze iñoiz ba-daki iñori aitzen emon barik urtetzen. Ba-dakizu ba, zeregin asko ta buru-auste aundiak izaten ditxu, ta gauzak sarri aztutzen jakoz». Ta ori gertatzen zan artian, bestia

(1) Barautsa, *broca*.

(2) Epaiki, *sierra*.

an egoten ei zan, olen bestaldian, tornuan, ankiari gora ta bera eragiñaz, izardi batian.

Baña, errietan gaitza da gauzak ixilik eukitzen eta beti zabaltzen dira zurrumuruak. Bein, Plaen-txia'ko biajante zirikalari bat, an sartu ei zan ta neskiak olako erretolika luze batzuek soltau ondoren, konsegidu ei eban uezaborrekin egotia, ta esan ei zetsan: «Baña, zuek zer egiten dozue: biarra ala teatrua».

Gaur, biar bada, itxuriari begiratzeko moduko aberatsen batzuek izango dira. Nork daki?

LXXXVI

EZKONDUEN GAUZAK

Mateo be ezkondu aurrian ez zan peskarako zalia, baña ezkondu zanian, bizi modua atdatze orrek bere izate guztia aldatu eban.

Lagun artera ez zala azaltzen ta bein bere lagunok esan ei zetsen:

—Zer pasatzen jak Mateo? Lagun artera agertzeko zaletasuna galdu ta peskaraua artu al dok?

—Auxe dok auxe,... afiziñorik ez da peskan ein biar. Ai! gizajuck, ez al jatsue bururatuko ezkontzerikan, bestela or ikusiko zaitxuet kaña banakin edo beste zeozerkin andriari iges eite alde. Andriari iges ein al dabena ez dok gizona makurra.

LXXXVII

MORROI AZKARRA

Basarri aretan, jai egun batian, kalera jetxi bierra zenuan. Eta basarritarrak, zelan noiz nai ez dabilen izaten olako aukerarik, pozik joten dabe kale alderutz. Baña, jakiña, basarriko lanak egiten be norbait gelditu biar eta morroi argia onela eskindu zan bere nausiari:

—Beno, kalera neu juango naiz, ala emen zeu geldituko zara?

LXXXVIII

IRETARGIAN GIZONAK?

Matxin eta Txomin astronomiaz berbetan ziar-duelako ez arritu irakorle.

Biak ziran eskola bakuak, baña buruan falta eben albidadia miñian euken; baita gañezka be.

Makiña bat izar aotan erabili ondoren, illargira jo eben. Txomin'ek, iretargian (1) gizonak bizi ziralara esan eban. Ta Matxin'ek arrituta:

—Tira, tira, ori baño gizon geiago intzalakuan najean. Gizonak zelan egongo dituk pa iretargian, oindiok «Sputnik»-ean txakurra bialtzerik be ezin juek asmau-ta.

—Ik esangoztak neri. An bertako gizonak dagozak, nik liburu batian irakorri najuan, jakintsu bati gañera.

(1) Illargia, iretargia Eibar'en.

—Bai ete? —erantzun zetsan Matxin'ek barrez-barrez, tranpan arrapau ebalá pentsaurik—. Ai, ai-ai, asto berinkatua, sinistu eiten dok gañera; zelan biziko dituk ba iretargian gizonak? ze, iretargia gatzatzen danian nora juaten dituk ba?

LXXXIX

EUKAN DANA...

Lagun batak bestiari:

—Uleixak (Urliak), eukan dana laga jetsak ospitalari.

—Zenbat?

—Zortzi seme.

XC

ZER DAU ZARTZAROAK?

Aurreragokuan aitxatu dogun Eibar'en egin zan *Euskaltzalien Batzar* orretan bertsolarien txapelketa be izan zan, eta geienok dakizuen letxe, Uztapide atara zan txapeldun. Amaieran asko pillatu ziran berari zorionak emon naian, ta aretariko batek esan zetsan:

—Ederto Uztapide, ori dok ori!; zarrago ta gorrigo.

Bestian erantzuna:

—Bai, ezurrak.

XCI

CHINA'KUAKE BAÑO OKERRAGO

Igezko urtian Eibar'en egin ziran *Euskaltzalien Batzarretan*, ainbat euskal-jai ederren tartian umientzako sariketak pe egon ziran. Ume asko presentau ziran eta barruan danentzako lain leku ez euala-ta kanpuan ein biarran azaldu ziran. Otz aundia euan arratsalde aretan ta umick eta maiko egiten ebenak otzez dardaraka pasau eben arratsalde guztia. Mai-buru, Larrañaga obispo jauna egon zan, China'ko Pinglian'dik bialdutakua. Egoera a ikusita plaentxiatarren batek laster zabaldu eban autua, esanaz:

—Mutillak, China'n gorriak erre ez ebena, eibartarrak otzak il biar juek. Pentsatzen juat eze, onek eibartarrok, ifrañuko Patxi (1) bera baño gorriauk dirala.

XCII

BESTIA LENAGO

Eibar'ko estaziñuan gertau zan. Eldu zan bat azken orduan aintxixiketan, eskuetan sobria zeroiala. Bilbo'rako prixako karta bat ei zan. Gizonori asi zan Bilbo'ra zoianen baten billa.

An euan Periko, Bilbo'ra sarri juaten zana, ta gure gizonorrek laster ikusi eban, danak duako erre-

(1) Ifrañuko Patxi (inpernuko Patxi), *demoniuari* esaten jako Eibar'en.

kadistatztat artzen ebena. Bestiak asarre txamar esan zetsan ez ebala nai eruan.

Berriz be, erregutzen:

—I, Periko, parkatik baña erreka au prixa-prixakua dok.

Baña, nola aspertuta eun beti olako prixakuak egiten, ez eukan gogorik ta onela biribildu zetsan bere erantzuna:

—Ain prixakua ba-dok, juari makiñistiagana, a ni baño lena elduko dok Bilbo'ra.

XCIII

EUSKERAREN BERRIAK

Bada Plaentxian gizon bat erriko guztiak jakituntzat daukena; baña, jakintsu geienen antzera «despistau» aundi bat ei da.

Ez dau izan biar tabernazalia, baña iñoiz, lagunekin ibiltze alde edo, txikito bat edo beste edaten ei ditu. Diñuenz, bein tabernan lagunegaz berbetan ziarduala eskutik basua jausi ei jakon ta laguneri begira galdetu ei eban: «Zer mutillak, basua naeukan eskuetan ala?» Eta beste olako milla konstatzen ditzue beragaitik.

Jakitsuna dancz, asko juaten ei jakoz, au ta bestia ta arutzagokua preguntez.

Bein, berekautan euala, bat juan ei jakon, ta bat-batian soltau ei zetsan:

—I, euskeriak zenbat urte jaukaz?

—Etxakiat; gerratian juzgauan ta elizan jaiozen errejistruak erre zitxuan ta ez dok erreza izango zeñek zenbat urte daukazen erabagitzia.

Beste bein, beste galdera bat egin ei zetsen:

—Ik uste dok euskeria il eingo dala?

—Or ba, nik geixorik zanik pe ez naekian.

Beste bat juañ jakon esanaz:

—I, eztabaida gogor bat jaukagu ta biar bada ik erabagi eike. Euskeria nundik datok?

—Nundik datorren? Nik ez naekian biajian zanik.

XCIV

TXIMIÑUAK BIARGIN

Eibar'ko tallar batian, beste askotan moduan, errekadista eitzen eban mutilla tonto txamarra zan eta bere tallarreko biargiñak, edo uezabak eurak, beti asmatzen eben zerbait berari adarra jote alde.

Bein, kontra-maixuak, deitu ta esan zetsan:

—I, Erdo; juari Amaña soplestisiagana eta esaiok au: Biargiñak karu urtetzeskuela ta Brasil'dikan tximiñuak ekartzeko idean gabizela. Tximiñuari biarran erakustia erreza izan biar dala, ta ganoraz erakutsi ezkeru, zelan jornalik pagau biar ez jakuen, otxinak (1) eitzeke bidia izango dogula. Tximiñueri abillanak, urrak, ezkurak, naranja azalak eta orretariko zaburrikeriak emon ezkeru naikua dabiela, ta, emendik aurrera, mezedez, naranjen ta platanuen azalak gordetzeko, falta eingo deskuela-ta.

Erdo'k, ixil-ixillik danak entzun zitxuan ta geiagoko barik juañ zan bere errakura, ziria sartzia nai zetsenik pe konturatu barik.

(1) Otxinak ein, dirua ein, aberastu.



Andik ordu betera, emen dator gure Erdo erantzunagaz.

—Zu, Amaña*k esan desta, bialtzeko naranjak eta platanuak eta pozik gordeko deskuzela euren azalak.

XCV

MONOPOLIUA?

Aiskide batak bestiari:

—Zer demontre ditzut oingo takorriak (tabakuak), Ollo-saldia edo dalako orrek iztarri guztia pikatzen jok, orrek aintziñako txortabarrak (1) baño txarraguak ditzut; ta barriz, beste Txesterrok azkarriagoak ditzuk oindiok, onek kriston buruko-miña egiten juek.

—Tabakaleria, aspirina fabrikaren batekin alkartuta egongo dok eta.

XCVI

BEZERUAK EZ GALTZEKO BIDE ON BAT

Euskaldunok, tratu kontuan ba-daukagu zer ikasi. Zintzuak izango gara, baña zintzuak izanarren berbetan takar txamarrak gara, ta batian irabasten doguna bestian galtzen dogu. Ara, bein, Eibar'ko denda batian zer gertau zan:

Kataluña'ko biajante bat euan dendariakin trantuan ta sartu zan bezero bat.

—«Ixinbo» jaboirik bai al dakazue? —galdetu eban bezeruak.

(1) Txortabarra, (abar-sorta), aintzinako takorri merke bati Eibar'en.

—Ez —erantzun zetsan dendariak—, «Txinbo» rik eztaukagu.

Ta, abixau zan bezerua beste dendaren batera. Aldeta gero katalanak diñotsa dendariari:

—Zure bezeruekin beti olan jokutzen ba—dozu laster geldituko zara eurak barik.

—Bai ete? Ola uste al dozu? Eta zer ein neike ba eskatutako gauza bat ez dakadanian?

—Gauzaren bat ezta kazunian, ezetz esatia baño askoz be obe da antzerakuak eskeñi. Ta «Txinbo» ez eukitzera, «Bilore», «Lagarto» ta beste jaboï batzuek ba—dituzula esan, ta «Txinbo» bezin onak edo obiak dirala esan. Ta olan, zure bezeruak eztabe ikasiko beste dendaren baterako biderik. Zeure obe—bïarrez esate—tsut (esaten deusut).

—Errazioa dozu gañera; izan be, oitura arlote txamarrak ditxugu. Urrengo olan iñor datorrenian jakingo dot pa zelan berba ein, bai orixe.

Biajantiak alde—ta andik gerora be ziñuan berekautan: «Onak katalanok, izan be, jaiotzatik dira tratulari aproposak, lau berbatan aze ikaskizuna izan dodan. Ez ba; emendik aurrera, gure etxetik ez da juango iñor ezer barik».

Ezan egun asko pasau. Sartu zan bezero bat dendara ta:

—Zu, papel «ijienikorik» ba—daukazue?

—Ez, papel «ijienikorik» eztaukagu; baña, orren orde, nai ba—zenduke, liz—papel (1) latza ta leuna daukaguz, eder—ederrak dira.

(1) liz—papel, *papel de lija*.

XCVII

NI TXAPELDUN NAIZENIAN...

Eibar'en, ba zan erregaldarian lazkoche burua eukan bat. Errian naikua berbakizun ipintzen eban, Joxio buru aundia. Gizajuaren «ganbaria» zala ta amaika jardun ta amaika eztabaida izaten ziran. Baita iñoiz berari preguntau be, ia baibenen bat izaten ebanian zelan maniatzen zan jausi barik egoteko; beste batzuek, ia buruko-miña eukanian zenbat aspirina artu biar izaten zitxuan; eta orrelakuak.

Bein, pelukeria batian ulia mozten euala, sartu zan beste bezero bat eta barrukaldera begiratu ta «Biar arte» esan da alde eban. Orduan ule-ebatzaliak:

—I, Manu, auxen bakarrik daukak aurretik.

—Orretxegaitik pa, biar arteraño ba-daukak.

Urte mordoxka bat da Eibar'en pelotari on bat sortu zala, bakarrik, egarriak artzen eban estu, ez emengo uran egarriak, Rioja'kuanak baño. Ala ta guzti be, danak espero eben txapeldun izatera elduko zala, ta berak pe bai itxura zanez, ba bein, enpresariuari esan ei zetsan:

—Zu, ni iñoizko denporan txapeldun izatera eltzen ba-naiz, Joxio buru-aundixan txapela edo bestela bere neurriko bat nai neuke.

—Zer dala-ta baño? —preguntau zetsan enpresario jaunak.

—Ba, Joxio buru-aundixan txapelak barrukaldetik daroian ugalakin gerriko bat egitia nai neuke.

XCVIII

PLAENTXIA'KO SOBRANTIAK

Artadi, izen aundiko medikuaz gañera, Plaentxia osuan errespetagarri maitatzen dabean gizon bat da. Bein, Jila'nian kafia trankil artz-ko asmuetan urten eban etxetik. Baña, Jila'nian gallego kuadrilla batek meriandia ebela-ta, eiñalako orruetan ebizen, euren ustietan ondo kantatzen ebelakuan. Eta Artadi an euan gallego artian tripak jaten.

Aren arteko batek urtetxuak zeroiazan Plaentxia'n ta ez bakarrik erri guztia ezautu, euskeraz be ederki eitxen eban. Gallegu ori konturatu zan Artadi jauna zerbaitx asarre edo zala ta, Plaentxia'ko oituerak zekixazenez, ta batez be erri guztiak medikuari zetsan errespetua; maitik jaiki ta juañ zan Artadi jaunagana.

—Artadi jauna, faltatzen al gare?

—Faltatzen ez, sobratzen zagoze!

XCIX

BURUA ARGI TA ANKAK MOTEL

Egun-sentitik illunabarreraño izardi patsa darixola erbitan ibilliarren, bere erbi-txakur ta guzti be, gure Pernando gizajuak ez eban erbi aztarranik be atara; alako domeka aretan. Baña, gauzak alaxen izaten ei dira-ta, illuntzian etxerutz zetorreia, ara nun, bere txakurra zaunkada batian asten jakon; baña batetik berandutxo zalako be bai eta bestetik gogo larregi ez-ebalako; ez berak eta ez txakurrak:

eten da bai zegozen, egun osuan ibilli ta ibilli ein ondoren. Bere kautan esan eban: «Biar goizian neuk konponduko aut». Ta esan da ein. Etxera juatiari bertan-bera laga-ta, lelengo billau eban basarrian: «Eup!», egiñaz sukalderaño sartu zan. Etxeko-andria bere alabarik gaztenakin afaria maniatzen ziar-duan leku ber-bertaraño.

—Gabon! etxeko-andre.

—Bai zuri be, gabon Jaungoikuak deizula. Zer dakarzu gizon?

—Ba, sapai baztarrian neretzako ta nere txakur onentzako lain leku ba ete dozun prentau nai netsuke. Ibiltzeko be ixa gauza ez garala gatoz da.

—Bai gizona, ainbeste eingo al dogu. Ta, afaltzeko ezer ba al dozue?

—Gogo ona ez al da naikua?

—Tira ba, pixkatian egon zaitez eta dana gertauko detsut.

Bai berak eta bai bere txakurrak, afariori gogo ederragaz iruntzi eben. Ta gero, sapaian ez-ezik, oe bigun goxoan etzin zan gure Fernando, sukalde ondoko kuartu batian.

Baña bertatik pasau zan baten, neskatotxoak ikusi eban ate-zirriztutik, burua oiñaldian (piecera) zeukala, ta anak burualdian. Eta arrituta amagana juanik, esan zetsan, a gizon-a zoratuta edo euala. Izan be a egoera ezan ain legezkoa. Ta etxeko-andriak, lelengo atian ots egiñaz, esan zetsan:

—Gizon, baña zer dozu olan oian egoteko?

Eta Fernando'k, nasai asko:

—Zer ba? Anak burukuan daukadazelako? Zer uste dozu ba zuk, nik burua daukatela kantzauta ala? Nik anak daukadaz kantzauta, anak!

C

BATA ZU TA BESTIA NI

Ipuin au Esopo'ri be irakorri netsan. Baña, Gertzia'ko ipuinlari arek nun jasoko eban ba Plaentxia'n izan ezik? Inbestigaziño bat eingo balitz, jakingo genduke Esopo Plaentxia'n ziar ibilli zala, ipuin batzen; bai orixe. Izan be, erri zelebren onetan gertatzen eztanik ezta beste inun be gertatzen. Ala da izan be, eta plaentxiatarak arro-arro azaltzen dira mundu aurrian, eurak diñuen ez ei da edozen plaentxiarra, bestela ikusi besterik ez dagola, lur onetan ainbeste milla-milloi bizi dirala ta plazentzitarak lau milla be eztirala. Orixen bai edozein ez dirana.

Baña, orraitxiok, emen be ezta dana poza ta barria, bestela ikusi deigun andra-gizon onen gertaera. Esopo'k beretzako artu ba-eban be, au Plaentxia'kua baintzat; eibartarri umiak giñala gure auzokotzat erakutsi zeskuen, eta olan izango da. Edo, Esopo plaentxiatarra ez ete zan gero? Colón be emengua zala diñue ta...

Noian kontatzera zitz ta bitz. Eta, emakumiok parkatu oin be zuek txar laga biarra. Nik al dakit zergaitik, baña beti andrak dozue kulpia; Meji'ku'n be gizoneskueri «txarro» deitzen detse ta emakumieri «txarra». Diñuenian zerbaitegaitik izango da...

Kaxkurrio ta bere andria, bata zu ta bestia ni, beti zebizen eztabaidan. Gizonak zerbaite edan be eitxen eban-da; bestiari berriz axaxa emoteko ezertxo be biar ez.

Andriak gizonari, mozkortuta zoian bakotxian

eiñalako errosarixo baten asten jakon: «Ori da xaxaria..., au ezta etxeko jiria..., ori al da ba etxeko gizonan ganoria ta errespetua..., zuk ein biar dozu, etxia ustu ta tabernia aberastu. Baña, ez, olan ezta; egunen baten ein biar dot eitxekoren bat. Bai. Egunen batian botako dot nere burua ibaira ta kitto».

Beti olan zebillen, baña Kaxkurrio be ezan mutua, onek pe mingaiña ez eban geldirik eukitzeko ta berak pe esaten zetsazen sekulakuak. Olixua ta binagria, botilla batian sartuarren ezin alkartu. Orrelakua zan Kaxkurrio ta Antoni'ren ezkondu biararren ondorena.

Egun batian, sarri bezela, Kaxkurrio etxian sartu zan egundoko laupardiakin (1), da andriak ikusi orduko:

—Mozkor! Mozkor! Alako mozkor!...

—Ixildu zaitetz; txoliñori —esan zetsan Kaxkurriok.

—Zer? Neu ixiltzeko gañera? Zu mozkorti bat besterik ezara ta neu ixildu? Baña? egunen batian ixilduko naiz ba egundoko.

—Olan gertauko ba-litz, orduan bai izango nuntzala ni zorientsu.

—Zorientsu diñozu, zorientsu? Berialaxe bota biar dot nere burua ibaira...

—Jardun bai.

Geiagoko barik, bentania zabalduta, bota eban bere burua ibaira.

—Iño! —diño Kaxkurriok berekautan—, esan da ein gañera! Ez najuan uste. Andra txarra zuan baña olan ezingo juat abandonau.

Artu eban farola ta billa urten zan. Bitxarte ta

(1) Mozkorra.

ezkutuna guztiak ikusiaz, ba-zoian ibai baztarretik gora. Orretan, tope ein dau Peru ta Txomin'ekin eta preguntan detse:

—Zer arraio darabik, Kaxkurrio? Angulatan ez orraitiok!

—Ixildu zakidaz! Nere andra ziztriñak bere burua bota jok ibaira eta emen nabik topatzen ete dodan.

—Baña, Kaxkurrio... Osintxu'rutz (1) oia? Ezta-kik ala ibaia Maltza'rutz doiala ta ur-korrontak berutz eruango ebala?

—Bai zera! Ezaun dok nere andria eztozuena ezautzen. Ez dakizue ondotxo aren «kontrako joera». Oin be, ziur naok, neri kontra egitiarren gora ingo ebala.

CI

TRANPIA!

Illunabarra zan. Plaentxia'ko basarri batera eldu zan gizon bat eta asi da ate joka.

—Nor da? —barrukaldetik.

—«Iberduero»-ko ispetoria naiz eta atia zabal-dizu.

—Ba..., pixkatian itxaizu, tranpia kendu biot eta.

—Zer!? Tranpia kendu biozula (bear dozula) ta itxaitzeko? Ez orraitxiok!

Indarka batian atiori zabaldu eban ta batera-batera jausi zan tranpa-zulotik kortako zimaaur ar-tera.

(1) Osintxu (*Los Mártires*), Plaentxiatik gorutz dago ta Maltza berutz.

CII

SEKULAKO ZULUA

Ardibaltza juan zan zapatak eroatera. Gure plaen-txiatarak jai-egunetarako zituan galtza bakarrak edo



zituan, eta zapatak ortotsik probau biarran izan zan. Zapatariari grazia ein zetsan itxuria, ta olan esan zetsan Ardibaltzari:

—Orrek, amak eindako galtzok etxaz ez berialakuan zulatuko.

—Etxakiat ba, galtzontzilluak pe era orretakuak jaukadaz, baña atzekaldian sekulako zulua jaukek!

CIII

EZKERTARRAK

Eibar'ko jentiak ezker famia izan dau aldia guztietan, naizta, eibartarron ustez, gure erri onetan ainbeste gorri ez izan. Baña, sasian zarraparraren bat danian zerbait izaten ei da, eta dana ezta gizurra izango.

Nik ezautzen ditudan gertaera batzuk agiri ederra emongo deskue. Orregaitik ez uste izan eibartarrak larritzen garanik, ze, gaurko egunetan ezta erreza jakitzen, zein baño, zein obia dan.

Erbesteko bat sartu zan Eibar'ko taberna batian, tragotxo bat egin naian, ta eskatu eban:

—Etara ei-dazu gorri bat.

Mostraoran bestaldetik euazen batzuk.

—Emen iru.

Jaki(zekuak izango ziran erbesteko arek eruango zituan iritxiak. Zer kontau ete eban.

Ta, beste bein, olako eibartar zelebre batek, Malta inguruan peskan ziarduala, pasau zan andik abade ezaun bat eta peska ona zeroian galdetu naian:

—Da; zenbat?

—Jangoikuak aña.

—Bat orduan?

—Ez, ba-pezt!

Aze ziria sakatu zetsan.

Biar bada Eibar'ko ezkertarrak eztira izango auzuetan pentsatzen eben añako gorriak. Ze, aintziñan gutxienez demoniuak eurak baño gorriagotzat euki giñuezen, baña politxo-politxo juan ziran kontuan jausten eibartarrak buztanik ez-eukela; atzian baintzat. Eta plaentxiatarrak esaten eben moduan «Eibar'ko txitia, ollo». Arrezkero amaika errik jo dabe eibartarren bidietara.

Gerra ostian, kartzelatik urten barri zan sozialista orretariko batk tope ein eban kalia, bere ais-kide aundia zan abade batekin, eta izketan ziar-duela, abadiak esan ei zetsan:

—Pozten nok osasunaaz etorri aizelako. Nik amaika errezu ein juat ire alde.

—Bai, eingo zenduzen bai; ta ori oso ondo dago; baña an errezuak ez-eze, urdei-azpikuak pe ederto etorriko ziran ba.

Onek dira Eibar'en gertatzen diranak. Baña Orbe'n iritzia bertsuetan, au da:

*Eibar'ek entzute txarra
dauka kanpuan
gezurrari baloria
emateien lekuan,
federik ez degula esateute
bear dan moduan,
gurekin konforme eztauana
obe billa juan,
akordauko da txarrauekin
trataturakuan.*

CIV

«BIRIARRUA» MUTILZARRA

«Biriarrua» gatxizenez eukan bat zan mutilzar peto-petua. Aren bildur guztiak ezkontzeko arriz-guanak ziran. Bere iritiz, ezkontzia. Olako-osiñeko ur otzetan igari eitxia modukua zan: probatzeko ankia sartu ezkerok ez dala an igaririk eitxen, an igari eingo bada buruz bera sartu biar dala.

Bere esaera guztiak eztira egiak izango, baña erdiak ba-litzaz be naikua errazoi dira ezkondu barik jarraitzeko. Bere teoriak ziran: «Ezkontzia, gaztetan eiten dan balientekeria bat besterik eztala». Beste iritzi bat zan: «Bein neska baten ondoren ibiltziak daukan arrizgua, gero bizi guztian atzetik kendu eziñik ibiltzia». Izan be, gizon bat zaintzeko eztago andrian moduko Guardia Zebillik.

Berriz, norbait ezer esatera aurreratzen zanian laster asko ixilduko eban; aren miñak aterik aña maratilla eukan. Ala be, iñoiz lagunen batek soltatzan zetsan:

—Ezkondu edo zeozer eitxeko ordua dok.

—Orixe dok iñondako desio txarra.

—Ondo bizi aiz ala?

—Askok nai baño obeto. Iñok, iñondako etxaukak desio onik, eta orregaitik nai juek ni ezkontzia.

Urrengo besteren batek:

—Tira «Biriarrua», zeozer pentsatzeko ordua dok pa.

—Ai, gizajua. Ik uste dok pentsau barik jarrai-

tuko nebala mutilzar? Ondo pentsau ezkerok eztaok ezkontzerik. Ez orixe.

Beste bein be, zirrikatze alde esan ei zetsen:

—Zer «Biriarrua», neskeri errekaua eitxiak bildurtzen au, ala ezezkoa artzeko arrizguak?

—Ez mutil, errekaua eitxiak eta ezetza artziak ez najok bildurtzen. Neskaren bati errekaua eitxia baño ez-palitzok, laster eingo gendukek. Baña nik daukadan bildurra, baietz esango ete desten dok.

Bein ba eieuan «Biriarrua» Asalgia'neko tabernan, eta beste batek aldamenetik esan ei zetsan:

—I, «Biriarrua», Maritxu kriaria, denpora guztian begira daukak eta uste juat eurekin guztanta dagola. Etxerako moduko neskia dok eta ez litzakek iretzako gaizki etorriko.

—Bai zera, «Biriarrua»-gaitik eztabik ori, bere kaxoliagaitik baño. Baña, egotia jaukak nasai. Ni Napoleon'en ustiekin nabik: «Maite kontuko trinforik aundiña: igesia».

Ba ete da «Biriarrua»ntzako «banpiresarik»?

CV

TRUKADIA

Jila'neko aurrian auto bat euan geldituta, plazentziatarrak ziran. Beste bat azaldu zan eta pre-guntau zetsen:

—Zer mutillak, Eibar'era zoiaze?

—Bai.

—Orduan eruango nozue. Leku bat libre ikusten juat baintzat eta.

—Ez ba. Txorokilla'ri zain gauaz. Ari agindu jetsagu ta.

Autokuak esan besterik ez eben ein, an etorren Txorokilla trapu baltz batekin matralla lotuta.

Autora sartzerakuan, esan zetsan:

—Ibe sekula ez aut ikusten Eibar'en, baña i bai tokau be parian **nik autuan** juateko aukeria daukadanian.

—Agiña ataratzera najoiak —erantzun zetsan Txorokilla k.

—Ba, nai-bok (nai ba-dok) trukadia eingo juau: l, juari trenian da ni juango nok autuan.

—Konforme nagok trukadiakin, baña gero agiña be euk atara nere orde.

CVI

ONDO KONFESATZEKO...

Erriko mutikorik zuzenenetarikua ez zan izango. Juan zan konfesatzera. Belaunikotu zanian; abadiak:

—Ondo konfesatzeko zenbat gauza biar dira?

—Bi.

—Bi? Ia zertzuek diran.

—Abadia ta pekatuak.

CVII

GIRO GUZTIETARA OITZEN EI DA

Galicia'tik etorritakuak ziran. Urtetxuak zaroiezen Eibar'en eta euskeraz be ederto eitzen eben. Gizon fiñak ziran, ta Matxari'an bizi ziran eurak einkako etxetxo batian. Ordu asko biarra ein ondoren mendira juaten ziran agurretara.

Euskaldun itxura asko artu eben, baña oindiok urakin da jaboiaikin eziran ain aiskide konpontzen. Naikua burukomin da zeregin euken dirua zelan aurreratu pentsatzen, etxeko amaraunak (1) kentzen denporarik galtzeke.

Bein, anai batak bestiari esan ei zetsan:

—Konturatu al aix emen inguruetan bedar asko ta ona eitzen dala? Ba, nere ustez auntz bat erosi biar gendukek. Olan, esnetan ainbeste diru emon biarrik ez gendukek izango.

—Orraitxiokarren eztok ori benetan esango.

—Zer ba?

—Ik esatetxuk (esaten dituk) gauzak —diño beste anaiak—. Geu ezin gaitxuk kabidu emen txabolatxuan eta, auntza, nun sartzeko asmua daukak pa?

—Geure kuartuan.

—Kuartuuuaan!... Zikinkeri larregi ezteitxok?

—Bai zera. Eztok ainbesterañok. Auntzak danera errez eitxetxuk eta juango litzakek oituaz.

(1) Amaraun, armiarma-sarea, *telaraña*.

CVIII

ERDIBANA

Kakalardo gizajua juerga zalia ba-zan be apaldu zan egundoko. Aspaldi dala biar barik ebillen; eta biarrik ezak, aldian izaten dau dirurik eza be. Sasoi bateko juergak ondo goguan zituan. Errekuerveduekin bizitzekua ba-litz. Baña, juanak-juan.

Iñoiz beran moduko lagunen batekin alkartzen zanian, laster azaltzen zituan bere sasoi bateko ibillerak, amaika aldiz esan zeban: «Arek zitxuan aje **ederrak**».

Ez dakigu zelan eta nundik, baña bein Kakalardo'n etxera lapurrak azaldu ziran. Kakalardo'k somau zituania kajoiak eta baztarrak arakatzen, esaten eban berekautan: «Gizajuak. Neuk egunaz ezin juat ezer billau ta zuek gabaz zabize».

Kakalardo'k oetik diar ein zetsen, ta errazoi justuakin gañera:

—Billatzen dozuena erdibana!

CIX

.....?

Gauza guztiak aztutzen jakozen despistau baten lepotik amaika barre eitxen ei eben gure alboko Plaentxia'n.

Egun baten uezabak bialdu ei eban Eibar'era prixako erreka bat Bilbo'rako errekadistiari erua-tera, esanaz:

—Juari eguerdiko trenian, da i oian tren bertantxe sartuko dok Paulo errekadistia ta berari emoiok paketa au. Olan gaur bertan artuko juek Bilbo'n. Eu, gero, artsalderdiko trenian etorriari.

Trena artuta ta juan ei zan Eibar'era, ta, uezabak esandako moduan, bera jetxi zan trenian bertan ikusi eban Paulo errekadistia sartzen. Baña, plazentziarrari aztu jakon zertara juan zan be, eta paketiori galtzarpian ebala, berba alditxo bat euki eban bere ezauna zan Paulo'gaz.

—Zer dok Plaentxi, Eibar aldetik?

—Bai, ona etorrinok erreka batera. Ta, eu, betiko bezela Bilbo'rutz eztok?

—Bai, nere biarra au dok da juan ein biar.

Gero, paketiori besapian dabela Eibar'ko kaliak ziar juan ei zan plaentxiatarrori, bere buruari esanaz: «Baña, ni gaur artsaldian zertara etorri ete nok Eibar'era? Errekauren bat ekarri juat eta etxakiat zer; au dok baltza, Eibar'erañok etorri-txa gero...»

Artsalderdiko trenori artuta juan ei zan berriz Plaentxia'ra, tallarrian sartzerakuan, uezabak pakettia galtzarpian ebala ikusirik, arritxuta esan ei zetsan:

—Zer? Gaur eztok juan errekadistarik ala?

—Zer errekadista?

—Ze errekadista izango zuan ba. Paulo, gizona, Paulo. Pakete ori emon biar zetsana.

Orduantxe gure mutilla astotik jausi.

—A! demonios! Ba-neuan ba ni, Eibar'era zertara juan ete naixen. Klaro! Paulo'ri pakettia emon biar najetsan gañera. Ene! enel... akordatzia aitzu.

Uezabak pe ez eban beste erremedixorik euki «irekin jai dagok» esan da barre ein baño.

Aztukor onek olakuak eitxea ezta arritzekua, ori baño aundiaguak egindakua ei da ta.

Baña, oindiok ori baño azkarrixagua be ein eban. Gabero, oera sartu aurretik, bentanan ziarro bat erretzeko oitura ei ekan. Ordurako oeko tapak zabal-duta, oiori bertan sartzeko prest eukitzen ei eban. Erretzia akabatzen ebanian, ziarro-mutxikiña (1) bentanatik kalera bota-ta berak buruz-bera oe gañera salto eitxen ei eban. Egun baten, edo obeto esan da, gabe baten deskuidau ei zan, eta ziarro-mutxikiña oera bota ei eban eta berak bentanatik buruz-bera salto.

Orrela il ei zan Plaentxia'n ezautu danik despis-taena.

CX

JOSEPATEKO ZELAIRUTZ

Otua, lelengotik uskeria bat zalakuan, luzero gaxorik egon ondoren, il-zorian ipiñi zan, baña nola sinismen kontuetan beste eibartar askoren moduan pixkat bada-ezpadakua zan, etxeak ez ziran atrebitzen elizakuak eruaten. Baña, ara senide bati gogoratu jakona.

—Ba-dakizue zer dogun onena.

—Zer?

—Nola lagun aundia daben Notxe abadia, bera ekarri disimulan; zein da bizitxara datorren moduan. Zer deitxozue?

—Ederto. Orixe ein biar genduke.

—Bai, bestelan, batetik eztakigu zelan artuko

(1) ziarro mutxikiña, *colilla*.

leukian berari abadia eruatia, ta bestetik berak pe igarriko lezkio il biar dana ta etxaku komeni olakorik.

Eruan zetsen Notxe abadia ta ikusi orduko, esan zetsan oetik:

—Zer dok Notxe? San Pedro'n dako errekauren batekin ator ala?

—Zer ba...?

—Ba..., Josepateko zelairutz najoiak eta, duda barik, San Pedro ik baño lenago ikusiko juat.

Notxe abadia agua bete agiñekin gelditu zan.

CXI

ZELAN ASI?

Aspaldi ebillen Joxe neska baten atzetik. «Biriarrua»-n iritziz aze arrizguak zituan. Ez-ekian asko.

Joxe, izan be ain zan lotsatia, ez-ekin asteko berbia zelan emon be. Bein neskiak txandia artzen ba-eban, orduan izango ziran kontuak. Joxe gizajua, ez-eukan emakume kontuan esperientzia askorik: neskiari berbia zelan emon pentsau ezin. Itxuria Joxe'k ez-ekian gizonak andreri berbia zelan kendu asmau eziñik ebizena. Gañera berbia bakarrik ba-litz.

Noizik peñian txikito batzuek geiago edaten zituan, balientetze alde. Baña olan da guzti be larri ibiltzen zan gure mutilla asieria zelan emon pentsau eziñik.

Alako illuntzi batian, tabernatik urten zeban, esanaz berekautan: «Gaur zeozer esan biar jetsat; gaur bai... Baña zelan esan?... A!, bai. Onela azalduko jetsat guztiz maite dotela: *Zu, Maitxu, zure*

biarrian naiz... Ez, ez, olan ez: Zu, Maitxu, alkarrentzako biou... Ezta. Ia beste modu baten: Zu, Maitxu, zu ta... ni ta..., gure semiak eta... Ez!, ezetz, ain aguro ez. Bestela laster nok aitxixa (1). Ia berrido zelan esan asmatzen dodan: Zu, Maitxu, zu^k ein dako berakatz-sopak... Aj! Zer berakatz da zer kipula. Barriz be nastau nok. Ia, ia: Zu, Maitxu..., zu, Maitxu... A! ta nere presentaziñua. Bai, lelengo nere presentaziñua. En fiñ, ba-najoiak dantzara. Maitxu an izangok eta urtengojok nai dabenak. Or-konpon, Mai-Anton! Orraitxiokarren, iñoiz nereganatzen ba-juat, orduan bai izango dala nere-neria, neuk neretzako nereandutakua, ta kitto! Iñoiz neretzako esan juat? Ez, gaur, gaur bertan. Iño!, orixen falta genduan bakarrik»...

Orrelako gauzak buruan zeroiazela urreratu zan Joxe Untzaga'ko plazara.

An euan Maritxu korro ertzian, bakarrik, lagunengandik libre. Au zan Joxe'n dako aukeria. Urreratu zan eta, esan, ez esan, pasau jakon unatxo bat. Izan be, Joxe ain zan lotsatia. Maritxu ikusten eban bakotxian biotzian zeozer sentitzen eban, anketako ikaria ta zentzuna lausotu. Baña orduan egunian bestetan baño geiago edan eban eta alako baten desididu zan, eta juan zan etsi-etsian abixaria artuta. Atzetikara urreratu zan neskiagana ta:

—Zu: ni Joxe naiz.

—Ene! —soltatu zetsan Maritxu'k—. Ba, ni ez naiz Joxe.

Joxe gizajua, mariaua biarrian, nun euanik pe barik gelditu zan, eta belarriak apal-apal ein da alde eban.

(1) Aitxixxa, aitaia, aitona.

CXII

GERUAGO TA GOGORRAGO

Kayetano be urtietan aurrera zoian. Batek jakin zebanian irurogeta amar zituala, esan ei zetsan: «Ez dituzu emoten». Eta bere erantzuna: «Ez ba, ezin emon; emon al ba-nituke ez nituke eukiko». Ez-eukan errazoa makala gure Kayetano'k.

Kalian poliki-poliki zoiala, pasadisuan zoian ezaun batek diñotsa:

—Gogor gabiz Kayetano, gogor?

—Bai, geruago ta gogorrago.

—...?

—Gogorran-gogorrez makurtzeko be gauza ez naizela.

CXIII

FRAISKO'N PASADISUA BERTSOTAN

Plazentzia'ko errian Fraisko Argate ei zan bat zerbait gertatzen zan bakoitzian bertso-berriak atar-tzen zituana. Orraitiok, Fraisko'k sarri jaso biar izaten zituan bere ordañak eta bost. Orretarako, bera ez-eze, gañerako plazentziatarrak pe ez ziran makalak.

Erri guztia konturatuta ei zeuan ibai erdi inguruan euan ugarte edo islan ba-zala egurra, bertan asitakuaz gañera ufalak ekarritako ura-kapiñetan (1).

(1) Ura-kapiñak, ufalak lagatzen dituan egur anabasa ondakiñeri deitzen detse Plaentzia'n.

Jentiantzako tentagarria zan orduango denporetan sutarako egurrak eukan balioa ekielako zelakua zan.

Ibaya beian etorrenian be ixa beteko urak izaten ziran, ta iñor ez zan atrebitzen izlara pasatzen, ta ara, burutaziño batian, erdi-billostuta, nun asi zan pasatzen Fraisko Argate. Baña, bueltan, egur-kargia ekarrela, azelako estuasunak pasau ei zituan. Ala biarrez, ondo melatuta (1), baña atara zan. Kustiñua osasunakin urten zala. Eztaukagu gero plumunixarik izan eban barririk.

Nai dabena esaten dabena, nai eztabena entzun biar izaten dabenez, berari be azaldu jakon bertsolari bikain bat: Garcia sastia. Fraisko'n pasadisua, olan kantau zituana:

*Dozenerdi bat bertso
Fraisko Argate'ntzat
txit komeni dirala
iduritzen zat;
berak ba-daki jartzen
beste askorentzat
ez da milagro izango
jartzia beretzat.*

*Santa Luzia eguna
señaladamente
izlara pasatu da
Fraisko Argate;
onuntza abiatu da
guztiz baliente
gaizki ibillia da
bidian bastante.*

(1) Melatu, buzti, blei-blei egin.

*Kargia bizkarrian
makilla eskuan
San Kristobal'en gisan
pasatzen ibayan;
gerri ingururano
buztitzera kuan
gauza baliosuak
an freskau zituan.*

*Ibayaren erdian
ba-zebillen larri
sastria berriz barrez
leiotikan ari;
andra gaxoa ujuka
balkoitik berari
miñikan artu gabe
uzteko kargari.*

*Andra alarguntzetik
libratzean alde
alaba arrizguan
ipintzia obe;
alaba egin zaio
kargiaren jabe
bera azkar etxera
kargarikan gabe.*

*Basoak eta lurrak
ditula beriak
gañera etxe eta
propiedadiak;
ofizioan ere
bai abildadiak
ura-kapiñetara
zertako juan biar?*

CXIV

IJITUAREN KONFEZINUA

Paskuakukak ein biar zirala-ta norbaitek engañau eban Pernales ijituaren andria konfesatzera jua-teko.

—Zaspigarren mandamentua? —preguntau zetsan abadiak.

—Oindiok pe bizi al da mandamentu ori?

—Zer uste zenduan ba, il zala ala?

—Makiñatxo-bat igurtzi artua izan biar da oiñez-kerero...

—Arrian ipiñita dago baña.

—Nik ez dakit ba olan izango dan kontu ori! Zaragoza'ko Ama-Birjiñia'ren oiñetan dauan arria be muñ da muñ egiñaz aitua ei dago-ta...

—Eta, zeuk muñ ein ete detsazu arri orri?

—Ez, jauna; nik ari muiñ baño zaspigarrenari ainkada geiago ein izan detsat, baña dauan itxuraz ezta asko gastau.

—Lagaiozu oin orri, ta esaidazu: ezer ostu al dozu?

—Ara ba, jauna; egia-egia esango detsut; ollo luma batzuek ostu ditut.

—Askotxo?

—Ollo batenak.

—Luma utsak?

—Ez jauna; ollo ta guzti.

—Esaizu ba ollo bat ostu dozula.

—Bai, jauna, bai; baña ez neban eskuratu lengo ta bigarrego golpian. Golpe, ta iru edo lau luma; kolpe, ta beste dozenerdi, ta, ze karajo!, esan neban; golpe ta lepua biurtu, ta lumak kendu ta orduan azaldu zan garbi-garbi ollua. Or, jauna, atalka, garbi asko nere konfeziñua.

—Orain ba, jabiari *resituziñua* ein biar detsazu.

—*Destruziñua* zer da?

—Ostutakua jabiari biurtzia.

—Lumak ala ollua?

—Ollua ta lumak!

—Jauna, ba ollua juan zan beste mundura; lumak or darez ta olluanak dira; a ollua zan orren jabia; eztau laga eredurik eta...

—Ta ollua norena zan?

—Eztakit, jauna.

—Emoizu ba pobreren bati bere balioa.

—Bai, jauna; nere gizona baño pobriagorik ezta iñor be ta...

CXV

EZAUPIDE JAKINGARRIA

Karlos Kapandegi zalakua, jaietan, gbera orduko sarri azaltzen zan albo-kargiak goputzari eutsi eziñik; gañerakoan gizon ona zan baña... Aretxek bai izanten zituala benetako astelenak. Gañera, txapela galtzen ez-ebanian, jersia edo txamarria izaten ziran. Karlos Kapandegi'ri gertau jakonik azka-

rriena izan zan, bein kantsontzilluak galdu zituala. Erriko ta tabernetako komun guztiak aratu zituan euren billa, baña eiñalak-eiñ ezin izan zituan billau. Etsi zanian Txanbolin'i aitzen emon zetsan pregoia joteko; bere inisial edo ezaugarriak ba-zituala ta biar bada azaltzia suertau leikiala ta.

Txanbolin asi zan kalez-kale, tanborra joaz olan ots eiten:

—Jaun-andreak: Bart erri ontan kalsontzilluak galdu dira; ezaugarritzat K.K. daroie!

CXVI

PINTXE AZKARRA

Plaentxia'ko tallar baten pintxe barri bat artu eben ofiziua ikaste alde. Asi zan eguneko arratsaldian bertan, nausiak bialdu eban bere etxera, esanaz:

—Juari gurera —alako ta alako kalia ta etxia zirala esanaz—, ta gure andriari esaiok meriandia emoteko; arrautza pare bat urdei-azpikuaaz.

Pintxe barriak, ori entzuterakuan, pozik altzau zituan anakak. Etxera eldu zan da eskatu eban meriandia. Jarri zan sukaldeko maian da urduri itxain eban arrautzok prijidu arte. Etxekoandriak maian ipiñi zituanian; esan zetsan:

—Bultza eiteko ardau pixkat be atarako ba-zenida eskertuko ziñuket.

Atara zetsan baso bat ardau, ta laster garbitu

zituan baztarrok. Gure pintxiak, aurrekaldeko ontziak izpilluan moduan laga zituan. Jan da edan ein ondoren, ezpanak garbituaz juan zan tallarrerutz. Bere artian pentsauaz: «Gure uezaba dok gizona jatorra, lelengo egunetik meriandak emoten asi dok. Edoz in modutan be begi-oneko jausi nok».

Eta tallarrera eldu zanian, uezabak esan zetsan:

—Baña, mutil, meriandia nun dok? Meriandata bialdu aut etxera eta esku utsik ator.

—Ene!; ba, etxera juan da meriandia eskatzeko esan destazunez, nik pentsau dot neretako izango zala, ta neuk jan dot.

—Ederto! Ik oin-arteko guztiak tapau dituk! Ba, ikusten dotenez, guretako baño geiago dakik, ta ire moruko mutil azkarrak fabrika inportantietarako obiak dituk.

Ori esanaz bialdu eban kalera. Baña mutiko arek ez zirudian gosiak ilgo ziranetakua, ta tripa-zorririk barik ibilliko da dabillen lekuan.

CXVII

«ZARE PAKEAN»

Gure auzoko erri zelebren bateko kanposantuan, gizon batek, bere andria enterrauta euan lekuan oia-ko marmolesko plaka bat ipiñi ei zeban, bere andriaren izen-apelliduekin eta barrenian, au:

«Nere andra maitia, emen zare bion paķerako».

CXVIII

NASTE-BORRASTE

Ostiantzeko zaratak gutxi ez ba-ziran be, radio otsaren artian orrelako eztabaida bizantino bat entzuten ei euan Muneta, Eibar'ko taberna batian:

—Ezin laikek!

—Zer ba?

Radioak tartian: *...jotballistik onenak bear ditugu...*

—Ez gizona, olako kertenkeriarik ezaik esan. Ezin laikek! Ezin leikialako!

—Ik esangostak (esango deustak) neri; gero, ni ez nok edozein...

...jakitunen trukez!...

—Edozein?...

...gurasoak: ez galduko alperrik dirurik eta denporarik zuen semeekin. Eurentzako irabaspiderik onena dozue...

—... nor dok pa edozein?

—Orraitick ez aiz ibilliko neri adarra joten.

—Baña, ba al dituk...

...erakutsi jotballian edo bestela pintura astrata...

—...nik daukadana dok, ik baño jakituria geiago.

Aitu al dok!

—Iiik? Ako sasi-letraua...

...bai jaunak! Aurrerapenak bear ditugu...

—Tira, tira; etxaukat barriketarako gogorik, ta astuekin diskutitzeko, askoz gutxiago...

—Emen astuekin diskutitzen dabena eu izango aiz!...

...aurrerapeneri jarraitzeko bide on bat: ikasi...

—Euk esan dok!

...*golak sartzen*...

—Esan da esango juat gañera!...

...*orain entzuleen dako jazza*...

Belarri-zuluetan dunderixua (1) ebala, zoratu biarran alde ei eban Muneta'k, naste-borrastedun taberna aretatik.

CXIX

DIRUAGAZ BADA GAUZA OBERIK...

Gaizki dabillanak gaizki amaitzen ei dau, ta ori berori pasau jakon Oskola'ri. Dirudun etxekua izan zan baña mozkorti uts bat. Beti, juergia an da juergia emen, xemeiko barik gelditu zan. Beragaitik ezin geike esan diruak jan zituanik, arek edan ein zituan.

Juan jakozen ari eukixan jaikixak; gizajuak ez eukan zer aora eruan, ezta ilda nun jausi be.

Gaztetan nok esango eban orretara jo biar eban'k. Azkenian, bere urtiak, Santañes'ko basarrian apopiilo ta gañera sapaian lo eiten. Eta baltzena zan, angotxe apopillajia pagatzeko lain be ez-ebala eukitzen.

Denporatxua zeroian aurrera ta etxeko-andriak, ain kalderra (2) ez izanarren, eperik naikua zala-ta, noizbait zeozertxo esan biar da leun-leun luzetu zetsan:


—Alakoren batian kontuak pe ein biar jitsuagu.

(1) Dunderixo, *zumbido bullanguero*.

(2) Kalder, kaldar, *ruin, egoista*; zekenaren-zekenez berekoia danarentzat erabiltzen dute Eibar'ko zarrak.

—Ipuiñak?

—Ez, kontuak. Ba-dakik pa, denporatxua da-
roiak eta. Nik eskatzerik ez nauekek nai baña...



zelan iri pagatzerik ez jan gogoratzen, apopillajia
eskatzera obiigatzen nek. la zorrak lijertzen doguzen.

—Tira, tira,... pagatzekotan ez nintzonan emen
cgongo. Diruagaz ba-dagon leku oberik.

CXX

PROMESIA

Ipuin au toki askotan entzun izan dot, irakorri be bai nunbaiten. Toribio Etxebarria'k, Joxe Gisasola'gandik jaso-ta, bertsoz eskribiduta dauka. Eibartarrerri gertatutako bezela azaltzen dau eta bere muña artuko dot nere onentzat.

Eztakigu ba nobixa eske juango zan, baña aintzina baten, Bolingo'ko Peru mutilzarra, San Antoniuak zirala ta, besperatik urten da, astia ebantik eta beria mundua, pasau erri bat eta beste bat, gau itxua eldu baño len, agertu zan Mañari aurrekaldian. An izan eban nun jan da edan ein eta ostarako lekua.

Urrengo egunian, goizeko maiko legiak bete ondoren, ardau-botia gizen-gizen ipiñita, aldaz gora abixau zan, sosiguzian, noizik-peinka inguruko aizdun mendi erraldoieri begiratu bat egiñaz.

Jentetza aundia zoian Urkiola'rutz, bide guztiak bete-beterik txindurrixak zirudien. Gure Peru'k, jente artian jo eban Txakur-zulo'ra. Egun sargoria izanik, izardiz melatuta, baña ez botia zimurtu bariik.

Barriro gorutz asi zanian, konturatu zan aurreratuago zoiala Marixa, Txatxin'go nesazarra. Burua euzki galdatatik gorde guran, goniaren atzekaldeko barrenagaz tellatua eginda. Bañak giza-tartian beti esna dabillen diabruak ein eban bere fetxurixia: goniaz batera jasota zeroian eunezko atorra, zati-biko arpegia egun argira jarririk.

Peru'k ots egin zetsan, esanaz:

—Marixa! «Errege-arpegia» agirian daroiazu!

Itxuria ez eban Marixa'k ondo aittu. Zergaitik eze, au erantzun-au emon zetsan da:

—San Antonio'ri promesia ein netsan (neutsan), penitentiatzat artara nere burua eruateko.

Ezta penitentzia makala atzetik ainbeste jende barreka eruan biarra, Peru'k ziñuan beretako, zer eta beste musua agirian; mardo-mardua gañera, Apri-llerdiko iratargi (illargi) ososua dala uste. Orixe bai dala promesia azkarrixa. Gañera beorrek eskindua, plaentxiatar arek baño zintzuago daroia. Plaentxiatar arek, geixotik ondo urtetzen ba-eban ortotsik igoko zala agindu zetsan, ta bai igo be ortotsik, baño automobilan.

Entzutia daukadanez, norbaitzuek erretratuak be atara ei zetsezen Marixa'n promesa orri. Ojanguren' enian ezin izan dot billau, ba, billau izan baneu pozik argitartuko neban ipuin-liburu onetan.

Baña, guazen osterera gure ipuiñera, Marixa'n promesian akaberia ikusi deigun.

Ba, orretan, egualdi sargoriak ekarren trumoi-zaparradian lelengo euri tantanak azalian sentitzerakuan, konturatu zan bere engañuagaz, ta azkar be azkar jatxi zittuan soñekuak. Bai orixe.

San Antonio'k makillapetu eban Marixa'k eroian diabrua, lotsari ederrak pasau erain da gero; baño demonio ori Peru'ri sartu jakon begi bietatik barrura; ta zelan ez, a aragizko azal zuria ikusita? alperrik izango zan neskazarra..., karanba!

Santuaren aurrian laster artu eban aurrerutzian alkarrentzako izateko erabagia. Eta, andik denpora gutxira izan ziran Kiñarra balleko auzuan sekulako

ezteguak. Peru ta Marixa, biak ziran Euskalerrian oso ezaunak eta aldia guztietatik izan zittuen kartak, ezkontzaren zorionak emonaz. Plaentxia'tik egin dako kartaren bat, sobrian «Peru» ipintzen ebala ta Ameriketa'ko Peru'rutz juan ei zan, ta gero, andik bueltan artu ei eben leलगoko semia kozkondtu (1) zanerako.

CXXI

ERABAGI AZKARRA

—Ara, mediku jauna, neri pasatzen jatana da, ezin naikiala egon ez jarrita, ez zutiñik eta ez etzinda.

—Orduan, esegi (2) zaitez.

CXXII

ZUZENDU EZIÑA

Zorixoneko bixamona, gau guztikua bota eben plaentxiatar biena. Bata juan zan bestian billa. Bigarren au jaiki ezin.

—Baña, jaiki ari. Biarrera juateko ordua dok eta...

—Ezin baña; ezin naikkek zuzendu.

—Ala, tira; barriketarik barik...

—Ezin naikiala zuzendu!

(1) Kozkondtu, *desarrolar*.

(2) Zintzillika jarri, *colgarse*.

Egia zan gañera. Oztoztan (1) zutintzen zan, baña tentetu arren ezin zuzendu, gizonori. Deitu ei zetsen Plaentxia'ko medikuari, eta ezetsan ezer billatzen, ez; gaixoa zuzendu ezin. Orduan deitu ei zetsen Bergara'ko Don Bittorio Mujika'ri, eta bardin, zuzendu eziña.

Danak bildurtu ziran. Eibar'ko Don Ciriaco Agirre'ri deitu biar ba. Eta deitu ei zetsen oni be.

Sartu zan Don Ciriaco eta ikusi eban gaixua.

—Zer ete daukat, Don Ciriaco?

—Ezebez; ez da ezer...

—Baña, nola leike...?

—Ba, ezer ez; daukazuna da, alkondaria galtson-tzilloko botoiak lotuta, ta, jakiña, zuzendu ezin.

CXXIII

DEMONIUA TENTATZEN

Mutil gaztetxo bat juañ zan konfesatzera. Galderen artian, esan zetsan abadiak:

—Berba txarrik eta, esaten al dozu?

—Bai jauna. Birauak jaurtzeko oitura ezin dot kendu.

—Ba, kendu ein biar dozu. Birauekin demoniua sartzen da zure kolkuan eta orduan ez zara zure buruan jabe, demoniua agintzen dau zuregan. Oitura txar ori ezin badozu kendu, birau bat jaurtzen dozun baktxian aitxiaren egizu ta demoniua zuregandik aldeko dau...

(1) Ozta-oztan, a duras penas.

—Bai ete?

—Dударик барик. Berba txarrekin, diabrua, zure barruan sartzen dan moduan, aitiaren egin dakuan azkar iges egiten dau.

Mutikua eleizatik urten zanian, onela asi zan eliz-ataian:

—*Mekaguen... tal...*, eta aitxiaren egin; *mekaguen... kual...*, eta berriz be aitxiaren egin.

Orrela ziarduala, pasau zan gizon bat.

—Txo, txo!: zertan diarduk?

—Demoniuari anakak berotzen.

CXXIV

GIZON BAT

Plaentxia'ko kale-kantoi batian an euan Joxe Martin ormakontra egonian, ta alakoren batian azaldu zan Erromaldo.

—Zer dok Joxe Martin, norbaiti zain ago ala?

—Bai, gizon bati.

—Gizon bati! Orduan, neu be emen gelditzera najoiak.

—Zer dala-ta?

—Ba, aspaldi dala gizon bat ezautzeko goguakin naizelako.

Izango al ziran Joxe Martin da Erromaldo aintziñako Diojenes baño suertetsuaguak.

AMAIERA



BILLA-BIDIA

ESAN BEAR BATZUEK... ..	5
I.—Aberatsak et pobriak	9
II.—Ezaun bat dala-ta... ..	10
III.—Biziaren garratza... ..	10
IV.—Otua ta konejua	12
V.—Ixilleko-peskan	14
VI.—Gomazko otela	14
VII.—Mezede baten ordeaz	16
VIII.—Kuardru baten biozkadak	16
IX.—Bion onerako	17
X.—Pernando'ren ametsa	18
XI.—Plaentxia'ko musikako bandia	20
XII.—Zein baño zein txartuago	21
XIII.—Tv	22
XIV.—Ugariak nun nai... ..	22
XV.—Arrain sopia	23
XVI.—Gautxoria	24
XVII.—Zein astuago?	29
XVIII.—Uts bat ez	29
XIX.—Karga ariña (?)	30
XX.—Komententzietara	32
XXI.—Trapu-trapu-ren zirikadak	33
XXII.—Biargin azkarrak	36
XXIII.—Purua zalakuan giltza	37
XXIV.—Murgil luzia... ..	38
XXV.—Ori ta ba-peaz igualak	40
XXVI.—Gu konforme giñan	42
XXVII.—Ardaua izan biarrian ura	42
XXVIII.—Ona ta txarraren filosofia Plaentxian.	43
XXIX.—Erroma'ra begira	44
XXX.—Itxaso landarak?	47
XXXI.—Eztagona balego	48
XXXII.—Asto-andria	48
XXXIII.—Zaran modukua	50
XXXIV.—Konbitxa	51
XXXV.—Medikua ta bere anaia	51
XXXVI.—Patroiaren eriotzaren barria	52

XXXVII.—Pernando Plaentxiatarra ta serenua.	53
XXXVIII.—Eiten dan neurrian	55
XXXIX.—Nai dana esaten dabenak, nai eztana entzuteko arrizkua... ..	56
XL.—Kaporala'n urterak	57
XLI.—Neke bako biarra	57
XLII.—Txirrita bertsolaria ta Erratxu'n txerria... ..	58
XLIII.—Errege izan ezin	60
XLIV.—Uezabak nai dabena eitxen dau	61
XLV.—Perretxikujale itxuak	62
XLVI.—Ogibitxartekua... ..	63
XLVII.—Radio prantsesa	63
XLVIII.—Ni, ni naiz	64
IL.—Indarraren gorabera	65
L.—Lenak partzen	65
LI.—Eztago gizonik!	67
LII.—“Gure etxian zer gertatzen da gaur!...”	68
LIII.—Uezaba ta morroia	69
LIV.—Tabernari zintzua	69
LV.—Amalau txuletak	70
LVI.—Txoria il, ala il txoria?... ..	71
LVII.—Itzalak sartzeko mutilla... ..	72
LVIII.—Keixapian	72
LIX.—Diru aurreratzalle, nai ta nai ez... ..	74
LX.—Zarraztada otsera... ..	74
LXI.—Nundik jausi?	75
LXII.—Lumatu barri... ..	76
LXIII.—Arnizguko biarra	78
LXIV.—“Berori”	78
LXV.—Kontuz...!	79
LXVI.—Ein eban beste	80
LXVII.—Oteleko adelantuak	80
LXVIII.—Medikuenak	81
LXIX.—Txorien arrapatakak... ..	82
LXX.—Itxasoko ur-gazia	84
LXXI.—Dana biarreko kantariak	84
LXXII.—“Ez dagok zertan larritu...”	86
LXXIII.—Okerreko lekuan... ..	88
LXXIV.—Zaldiak jasotzia baño gauza erreza-gorik... ..	88
LXXV.—Bietara konforme	89
LXXVI.—Galdo-Txiki'n zirikadak	89
LXXVII.—Zirikalariari, zirikalari-terdi... ..	91
LXXVIII.—Zeruko ate-zain... ..	92
LXXIX.—Ajia ta gizonkeria	93

LXXX.—Lete ta Iñurrieta, Plaentxia'ko bertso-lariak	94
LXXXI.—Aingiria labana dala... ..	101
LXXXII.—Medikua arritxurik	102
LXXXIII.—Aratoste batzuetan	102
LXXXIV.—Aita Donosti Eibar'en	104
LXXXV.—Aundikerizko tallar bat	105
LXXXVI.—Ezkonduen gauzak	107
LXXXVII.—Morroi azkarra... ..	108
LXXXVIII.—Iretargian gizonak?	108
LXXXIX.—Eukan dana... ..	109
XC.—Zer dau zartzaroak?	109
XCI.—China'kuak baño okerrago	110
XCII.—Bestia lenago	110
XCIII.—Euskeraren berriak	111
XCIV.—Tximiñuak biargin	112
XCV.—Monopoliua?	114
XCVI.—Bezeruak ez galtzeko bide on bat	114
XCVII.—Ni txapeldun naizenian	116
XCVIII.—Plaentxia'ko sobrantiak	117
XCIX.—Burua argi ta anakak motel	117
C.—Bata zu ta bestia ni	119
CI.—Tranpia!	121
CII.—Sekulako zulua	122
CIII.—Ezkertarrak	123
CIV.—“Biriarrua” mutilzarra	125
CV.—Trukadia	126
CVI.—Ondo konfesatzeko... ..	127
CVII.—Giro guztietara oitzen ei da	128
CVIII.—Erdibana	129
CIX.—.....?	129
CX.—Josepateko zelairutz	131
CXI.—Zelan asi?	132
CXII.—Geruago ta gogorrago	134
CXIII.—Fraisko'n pasadisua bertsotan	134
CXIV.—Ijituaren konfeziñua	137
CXV.—Ezaupide jakingarnia	138
CXVI.—Pintxe azkarra	139
CXVII.—“Zare pakean”	140
CXVIII.—Naste-borraste	141
CXIX.—Diruagaz bada gauza oberik... ..	142
CXX.—Promesia	144
CXXI.—Erabagi azkarra	146
CXXII.—Zuzendu eziña	146
CXXIII.—Demoniua tentatzen	147
CXXIV.—Gizon bat	148